



'Ezina ekinez egina'

Lan-istripu baten ondorioz hanka galdu zuela bost urte bete direnean, Torreauzoko lasterketan parte hartuko du losu Egañak

Herritarren parte-hartzea, lankidetza publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko ordenantza onartu du Udalak

► Herritarrak gobernuan partaide izatera igarotzea da ordenantzaren helburua, udalaren, gizarte eragileen eta norbanakoen arteko lankidetza sustatuz. ► Uztailaren 11n sartuko da indarrean.

Martxoaren 31ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez eta hasiera bateko izaeraz, herritarren parte-hartzea, lankidetza publiko-soziala eta gardentasun instituzionala arautzeko ordenantza. Alegazioak edota zuzenketak proposatzeko epea igaro ostean, ekainaren 20an argitaratu zen ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta uztailaren 11n sartuko da indarrean. Izaro Elorza alkateak eman digu gobeatzeko era horizontalagoa ahalbidetzen duen ordenantza honen inguruko argibideak.

Herritarren parte-hartzea, lankidetza publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantza onartu du Udalak. Zein helbururekin?

Ordenantza honek, herritarren partaidetzarako zein ikuspegi komunitarioa duten ekimenak udal politiken erdigunean jartzeko urratsa ahalbidetzen du.

Helburua, zentzu horretan, herritarrak gobernuan partaide izatera igarotzea da, udalaren, gizarte eragileen eta norbanakoen arteko lankidetza lagunduz.

Eta zergatik onartu dugun? Bada, gure ustetan, orain artean politika pentsatzeko eta egiteko

moduak zalantzan jarri behar ditugulako, eta politika publikoen estrategiak berriz pentsatu: ahalegin hori egin eta egiten jarraitzeko urratsa da ordenantza hau. Aldaketarako jaio den dokumentu bat da, baina norantza ere argia dugu zentzu horretan: irekiago, erlazionalago, parte hartzaileago, kolaboratzaileago eta inklusiboagoak izatea.

Eta noski, ezinbestean, gobernatzeko moduak berrikustea ere badakar. Egiteko modu horizontal eta malgu, elkar-dependentsiatik zein autonomiatik aritzera pasa beharko dugu, gobernantza lankidetza handiagoz eta sarean jarduteko ariketa gisara uler dadin.

ORDENANTZA IKUSGAI

Udalaren webgunean dago ikusgai parte-hartzea, lankidetza publiko soziala eta udalaren irekiera arautzeko ordenantza



Gogoratu behar da, Udalak 2015ean erabaki zuela Partaidetza eta Garapen Komunitarioko departamentua sortzea eta, beraz, ordenantza hau urrats bat gehiago izango da partaidetza politikak egonkortu eta indartzeko bidean.

Hala da. Hemen diogun hau ez da berria Oñatiko Udalarentzat, badaramagu denbora bat hau balioan eta praktikan jartzen. Azken urteetan emandako eredu aldaketa horretan sinesten dugunaren seinale da. Egin duguna da, jarduera ordenatu eta arautu. Forma juridiko bat eman.

Hiru atal nagusi ditu onartu berri den ordenantzak. Lehenengoan, herri mailako elkartearen sarea indartu, eta lankidetza publiko-soziala sustatzeko Udalak jorratuko dituen bideak eta tresnak jasotzen dira. Zer azpimarra daiteke atal honetan?

Lehen aipatutakoan urratsak emate aldera, hiru asmo ezarri



ditugu: gizarte ehuna indartzea eta logika komunitarioak artikulatzea, eta herritarren parte hartzea sustatzea politika publikoetan eta erakundea (Udala) irekitzea.

Lehenengo atalari erreferentzia eginez, partaidetza sozio-komunitarioaren bidez, gizarte zibila indartu nahi dugu, komunitateak eta jardun komunitarioa erdigunera ekartzen dituen eredu honen bidez. Hauetan dago-eta, partaidetza sozio-komunitarioa garatzeko oinarria.

Bide ezberdinak daude, alde batetik gizarte-ehuna indartzea, eta bestetik logika komunitarioak artikulatzea.

Lankidetzaren publiko-sozialak hitz egiten dugunean, zer ulertu behar dugu? Adibideak?

Gizarte bat zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta beharrezkoagoak dira bai komunitatearen artikulazioa, bai eta lankidetzarako eta politika publikoen koprodukzioarako bideak irekiko dituen gobernantza eredu

HERRI KONTSULTAK

Udal mailako kontsulta bat sustatu ahal izango dute herritarrek, Oñatin erroldatutako biztanleen %10ek izenpetzen badute



Ordenantza honekin elkarrentzat eta elkarrekin gobernatzeko printzipioak eta jarraibideak ezarri nahi dira, pertsonak erdigunean jarrita



Aldatuz eta eguneratuz joango den dokumentua da ordenantza, baina norantza garbia du: irekiago, erlazionalago, parte hartzaileago, kolaboratzaileago eta inklusiboagoak izatea

IZARO ELORZA ARREGI
ALKATEA

bat ere. Bakarrik baino, batera errazago erantzungo diegu herri honek dituen behar eta erronkei.

Udala, hurbileko administrazioa den heinean, harreman, lankidetzaren eta partaidetza ereduak berrikusi eta herritarren eta erakunde publikoen arteko harremana ulertzeko eta ahalbidetzeko bestelako moduak bilatzeko eta finkatzeko. Ze ideiekin? Ba, boterea eta erantzukizunak partekatu ahal izateko eta hornitzaile-kontsumitzaile edo eskatu-eman esparrua gainditzeko espazio eraldatzailea izan daiteke.

Lankidetzaren publiko-sozial horren adibide dira: Emakumeen Kontseilua, Eltzia, Esperientzia gelak, eta puntualki sortzen diren lankidetzazko beste ekimen batzuk.

Gizarte-ehuna indartzeko, Udalak baliabide ekonomikoak, materialak, eta udal espazioak jartzen ditu elkarrekin zein norbanakoen eskura, beraien jardunarkean aurrera egiteko.

lazio azaroan herriko elkarte,

kolektibo eta eragileei zuzendutako 'Aulkiak' topaketa antolatu zenuten. Nola ikusten duzue gaur egun herriko elkartegintza, gizarte-ekimena eta partaidetza kultura, oro har?

Elkartegintza oro har indartsu dago, mugimendu asko dauka. Eta lehen aipatu bezala, behar beharrezkoa da logika komunitarioa artikulatu ahal izateko, gizarte-ehun indartsu bat izatea. Oinarri sendoa hau izanda, espazioa eraldatzaileetara salto egiteko aukera gehiago daude.

Aulkiak ekimenak jarraipena izango du, proiektu hauek ez dira hasi eta amaitzen, baizik eta bide bat markatzen dute.

Ordenantzaren bigarren atalean herritarren partaidetza antolatze bideak jasotzen dira. Besteak beste, herri-ekimenak edo herri-kontsultak antolatu ahal izateko aurkeztu beharreko sinadura kopurua eta prozedura zehazten da. Zer azpimarratuko zenukete arlo honetan?

Puntu honetan partaidetzaren helburuak zeintzuk diren azpimarratu nahiko nuke, eta gauza da, helburuetariko bat da, sistema demokratikoa indartu eta zerbitzu eta politika publikoen kalitatea hobetzea, herritarrek hausnarketan, elkarrekin eta arazoaren konponbidean inplikatzeko tresnak aktibatuz.

Partaidetzak benetakoa, eraginkorra eta gratifikantea izan nahi badu, izaera sinboliko huts batetik haratago, politika publikoen diseinuan eta ezarpenaren eragin behar du.

Horretarako, Oñatiko Udalak herritarren partaidetzarako estrategia lau multzotan hedatzen du: eskubideak, partaidetza zuzeneko kanalak (herritarren ekimenak eta udal kontsultak), organoak eta prozesuak.

Aipatutako herri-ekimenak edo herri-kontsultak, kanaleta-

(hurrengo orrira)

riko batzuk dira. Eta prozesuen adibideak dira: partaidetzazko aurrekontuak, haur-parke eta gaztelekuaren inguruan egindako parte-hartze prozesuak, HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra)... Irailetik aurrera abian jarriko dugun Emakumeen Etxearen inguruko parte-hartze prozesua ere aukera ona izango da ordenantza honen eratze prozesuan jasotakoa praktikan jartzeko.

Hirugarren atala Udalaren gardentasunari buruzkoa da. Zer esan nahi du horrek, eta zein bide edo mekanismo jasotzen ditu ildo horretan ordenantzak?

Informazioa jasotzeko edo izateko eskubideari erantzuten dio, bai publizitate aktibo bidez bai eta eskaera bitartez eta hori aurrera eramateko dauden bitartekoez. Esan behar da gardentasunari lotutako eta erantzuten dion prozesu bat abian dugula eta berri ematen joango garela, horretarako bereziki, publizitate aktiboz herritarrek informazioa eskuragarri izan dezaten. Epe luzerako plan bat da, orain eman diogu hasiera.

Honek erakusten du ordenantza honekiko dugun konpromisoa, hasi baikara bertan jasotakoei erantzuten.

Ordenantzaren lanketa prozesuan oso kontuan izan duzue genero ikuspuntua. Zertan nabaritu da hori?

Gune publikoa generoan, adinean edo klasean oinarritutako arauak markatzen dute, eta bostere harremanek baldintzatzen dute. Arreta jarri nahi dugu, baztertuta eta gutxiegi ordezkaturak egon diren eta ahots legitimitate oso mugatua izan duten biztanleria sektoreak eta kolektiboak barneratzeko aukera, batez ere emakumeei, haurrei eta gazteei eta migratzaileei dagokionean.

Azken finean, sistema bat zenbat eta inklusiboagoa izan, orduan eta demokratikoagoa

UDAL GARDENTASUNERAKO BIDEAN, PAUSO BERRIAK

2022-2025 urteetarako **gardentasunerako plan** bat diseinatu, eta **gardentasun ataria** martxan jarri eta elikatzeke lanean dihardu Udalak

Oñatiko Udalak gardentasunean aurrera egin nahi du eta horretarako aholkularitza eta asistentzia teknikorako zerbitzua kontratatu du: udal mailako hasierako bide orria zehaztu eta 2022-2025 urteetako lan-plana idatzi zein garatzeaz gain, gardentasun ataria martxan jarri eta elikatuko du.

Aurrekari gisa, Oñatiko Udalak gardentasun sistema abian jartzeko lehen urratsa 2020. urtean eman zuen: gardentasunari dagokionez, barne mailan erakundea zein egoeratan zegoen eta abiapuntua zein zen zehazteko diagnosi bat egin zuen. Besteak beste, honakoak landu ziren: toki-administrazio gisa dagozkion gardentasun-betebeharren identifikazioa, eta horietan aurrera egiteko eginbeharrak zein irtenbide teknologikoen mahai-gaineratzea.

Diagnosi horren berrikuspenean egiten ari dira orain, eta, hori oinarri hartuta, 2022-2025 urteetarako gardentasunerako lan-plan bat eskatu zaio ATTEST enpresari. Plan horrek udaleko gardentasunerako-ekintzak marraztuko ditu datozen urteetarako. Apirilean hasi zen lanean, eta 2023ko apirila arte ibiliko da aipaturiko eginbeharretan.

Hau guztia posible egiteko, udal barneko funtsezko eragilean (alor ezberdinetako teknikariak) koordinazio eta jarraipen mahaia eratu da, eta jada lanean dabil plana idatzi eta gauzatzeko bidean. Gainera, gardentasun-edukiak biltzen eta prestatzen ari dira, laster martxan egongo den gardentasun ataria elikatzeke.

Aipatu prozesu honek udal irekiera eta gardentasunerako bidean aurrera egiteko konpromisoan berresten du Oñatiko Udalak. Are gehiago, berriki onartu den "Herritarren Parte-hartzea, Lankidetzat publiko-soziala eta Irekiera instituzionala arautzeko udal Ordenantzak" hain justu gardentasuna du hizpide, besteren artean, hirugarren atal horretan.



IZARO ELORZA
ALKATEA



Arreta berezia jarri dugu baztertuta eta gutxiegi ordezkaturak egon diren eta ahots legitimitate oso mugatua izan duten biztanleria sektoreak eta kolektiboak barneratzen, batez ere emakumeei, haur eta gazteei eta migratzaileei dagokionean. Azken finean, sistema bat zenbat eta inklusiboagoa izan, orduan eta demokratikoagoa izango da

izango da. Zentzu horretan, partaidetza politiken eta berdintasun eta intersektionalitate politiken arteko aliantzak eta uztardurak ezinbestekoak dira.

Ordenantza honekin, elkarrentzat elkarrekin gobernatzeko printzipioak eta jarraibideak ezarri nahi dira, pertsonak erdigunean jarrita, eta hauekin batera, hauek izan ditzaketen ezaugarri eta behar ezberdinak prozesuaren baitan txertatuz eta irisgarritasuna erraztuz.

Egia esan gure kasuan, berdintasun politikekin lankidetzat erraza da eta ekarpen naturala egin diote jarduneko politikei.

Udazkenean ordenantzako puntu nagusiak laburbiltzen dituen esku-orri bat banatuko dugu etxe guztietara. ■

BEHAR DUZUN

TARIFA MEREZI DUZUN
PREZIOAN

FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 25GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN
BEZ barne
Linearen kuota
barne.

BETIRAKO

ETA GEHITU
BESTE LERRO BAT 25GB
1€/HILEAN
LEHENENGO 6 HILABETEETAN



ETORRI ETA EZAGUTU:

L I Z K E R
I N F O R M A T I K A

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TELF: 943 090 600



BEZ barne Eskaintza 2022/06/30ra arte salmentetarako balio du Fibra 300Mb-ekin Tarifa PLUS 25GB-ekin kontratatzean 39,90 €/hileko betiko linearen kuota barne. 181,56ko deskontua 3 hilabeteko egonaldiaren menpekio instalazioan. Tarifa PLUS 25GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; gehienez lerro bat kontratu bakoitzeko. 2026ko bigarren sei hilabetean Espainiako zuntz sarerik azkarrena, nPerfek egindako ikerketa independentearen arabera. Kontsultatu gainerako baldintzak www.masmoviles.com webgunean.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

54 proposamen izan dira onartuak leheneste fasean

► Iraila bitartean 54 proposamen horien bideragarritasuna baloratuko da, alderdi tekniko, legal eta ekonomikotik, eta hortik aterako dira bozketa fasera igaroko direnak

Partaidetzazko 2023/2024 prozesuak bere bidea egiten jarraitzen du. Gogoratu, helburua dela herritarren artean erabakitzea zertara bideratu udal aurrekontuetako **500.000 €**.

1. FASEA: PROPOSAMENAK JASOTZEA

Lehenengo fasean herritarrek egindako **230** proposamen jaso ziren. Antzeko izaera eta helburua zuten proposamenak bateratu eta multzokatu ondoren, proposamen kopurua **122**ra murriztu zen.

LEHEN GALBAHEA

Prozesu honetarako berariaz sortutako Mahai Politikoak (bi udal taldeetako ordezkariak osatua) proposamenak banan banan aztertu zituen, aurrez zehaztutako baldintzak betetzen ote zituzten ala ez erabakitzeko: **1.** Udalaren eskumenekoa izatea; **2.** Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea; **3.** Interes orokorrekoa izatea eta onura publikoa ekartzea; **4.** Gastua 200.000 €-koa baino nabarmen handiagoa ez izatea; **5.** Aurretik planifikatuta ez egotea edo dagoeneko exekuzioan ez egotea; **6.** Orokorregia ez izatea edota propositiboa izatea. Lehen galbahe horren ostean **76** proposamen izan ziren onartuak.

2. FASEA: PROPOSAMENAK LEHENESTEA

Aurrera egin zuten proposamen guztiak garatzea ez da bideragarria 500.000 €-ko aurrekontuarekin, eta bozka fasean proposamen horiek guztiak aztertzea ere konplexuegia izango litzateke. Horregatik, onartutako 76 proposamenen artean lehentasunak finkatzeko ariketa egin zen. Horretarako, Berme Taldeak (ausaz aukeratutako herritar taldea) lehentasuna baloratzeko irizpideak finkatu zituen: **1.** Onuradun kopurua; **2.** Onuradunen ezaugarriak (urgentzia, oinarritzko beharra); **3.** Erreibindikazio historikoa; **4.** Exekutatzeko erraztasuna.

Irizpide horiek aintzat hartuta, herritar guztiei irekitako bi tailerretan egin zen proposamen bakoitzaren balorazioa. Ondoren, Berme Taldeak osotasunari zuzendutako irizpideak (proiektuen tamainaren aniztasuna, eta gaien aniztasuna) ezarri ditu. Bigarren galbahe horren ostean, ondoko taulan dauden **54** proposamenak igaro dira 3. fasera, balorazio teknikoko fasera. Azterketa hau arloko udal teknikarien laguntzarekin egingo da.

LEHENETSI DIREN 54 PROPOSAMENAK

AZPIEGITURAK

- Kioskoa, plaza eta frontoi ingurua konpondu eta eraberritu. Zoruko irregularitasunak konpondu, berdeguneak konpondu, kioskoa eta alturan dauden espazioak (jardinak) kentzea aztertu. Gernikako zuhaitza mantendu, espazio irekiago bat sortzeko.
- Azoka eraberritu: argiteria hobetu, irisgarritasuna hobetu, hotza ekiditeko zabaldu eta ixten diren ateak jarri...
- Negurako egonlekuak egokitu. Neguan kalean egoteko lekuak egokitu, adibidez, bankuei aterpetxoa jarrita.
- Komun publiko finkoa ipini ur-txorroten parkearen ondoan.

KULTUR ESPARRUKO AZPIEGITURAK

- Santa Ana aretoan taldeentzat lokala. Ekintzak antolatzen dituzten taldeentzako biltegia egokitu.
- Eltzian musika grabatzeko aretoa egokitu, entsegu lokalen ondoan.

ARGITERIA PUBLIKOA

- San Martingo plazoletan argiztapena gehitu, ilunegi dago-eta.
- Arboledako argiteria aldatu. Argi gutxi dago eta ilun dago.

HERRIKO PAISAIA

- Olakuako estankeak biziberritu.
- Graffitiak edo muralak herriko hainbat gunetan egiteko lehiaketak antolatzea. Adibidez, Kasablankako bidegorriko tunelean.

HIRI ALTZARIAK

- Bidaurretako iturriko txorrota konpondu.
- Kanpantxoko iturria berriztu eta atzealdea babestu, hondakinik ez iristeko bertara.
- Bankuak, barandillak eta zorua garbitu eta margotu Olakuan (16-17-18 inguruan).
- Zaborrontziak aldatu eta gehiago jarri. Burdinezko zaborrontzien ordez San Martinen dauden egurrezkoen antzekoak ipini. Horrez gain, zaborrontzi berriak ipini Usakon, Usakora bidean, plazan, txutxe-denda inguruan, Korreos-eko parkean, plazako iturri ondoan, frontoi ondoan, Zubillagara bidean, Ongi kanpoan...

HERRIGUNEA

- Herrigune historikoaren bilakaera aztertu (zerbitzuak, negozioak, belaunaldi aldaketa, degradazio urbanistikoa...) eta ekintza plana garatu.

IRISGARritasuna

- Kale Zaharreko espaloiak eraberritu eta zabaldu, irisgarritasuna bermatzeko (gurpildunentzako oztopoak kendu, bankuak ipini, oinezko bihurtzea aztertu... Faseka egin daiteke.
- Arantzazuko Ama kale osoan irisgarritasuna hobetu.
- Arboleda irisgarriago egin: oinezkoen ibilbidea berdindu, oztopoak kendu eta bankuak berritu.

- San Lorentzoko goiko partea irisgarriago egin: espaloiak, zebra-bideak...
- Azkoagailu barneko irisgarritasuna hobetu. Gorpildun aulki eta haur-kotxeekin bertara iristeko eta ibiltzeko moduan eraberritu. Komunera joateko aukera ahalbidetu.
- Natur Eskolara doan zubiko hesian sarea ipini, hesiak zulo handiak dituelako.
- Barandillak jarri anbulategi inguruan, Zubikoa frontoian (harmailetara igotzeko), San Martinen...
- Eskailera elektrikoak zaharren egoitzara. Erresidentziara igotzeko modua erraztu (eskailera bidez, zinta bidez...) irisgarritasuna hobetzeko.

MUGIKORTASUNA

- Portalekua gunean oinezkoen pasabidea babestu, errepidea gurutzatzea seguruagoa izan dadin.
- Udaltzaingoko eta anbulategiko biribilguneen arteko gunea peatonalizatu edo segurtasun barrerak ipini.
- Moyua kalearen irisgarritasuna hobetu Telefonikatik musika eskolara artean: espaloiak, abiadura moteltzeko elementuak...
- Kalegoienatik Jaumendiko bidegurutzera arteko bidean oinezkoen irisgarritasuna bermatu, Lezesarri auzoak aurkezturiko proiektuaren arabera.
- Bidegorria eta oinezko bideak bereiztu piboteekin. Adibidez, Ugarkalde eta Bidaurreta artean, oinezkoak bizikleten eremura pasatzen direlako.
- Errepidean dauden bidegorriak bereizi. Bizikletek eta autoek partekatzen dituzten bideetan bidegorri berriak egin
- Bizikletak garbitzeko Bidebarrietako gunea hobetu. Giltzaz itxitako kaxa batean egotea mangera eta grifoa. Mangera berriak ipini: presio gutxi dute, denbora gutxi irauten du urak...
- Auzuneetan bizikletak uzteko tokiak egokitzea, adibidez, Ugarkaldeko 15-16 atarien aurrean. Leku asko dago, eta ez luke pasorik oztopatuko.
- Parking publikoetan ibilgailu elektrikoentzako karga-puntuak.
- Urrexolako bidean hesiak ipini, seguruagoa izateko.
- Autoen abiadura murrizteko oztopoak ipini Eltzia eta Garaiko etxeen arteko bidean, zebra-bideak gurutzatzea seguru izan dadin.

LANDA BIDEAK

- Auzo arteko bidezidorrak garbitzea /berreskuratzea. Existitzen diren bidezidorrak eta bide-zortasuna dutenak berriro zabaltzea. Adibidez, Murgia auzoko Umerez baseritik Olabarrieta auzoko tellerixara doana.
- Auzo arteko bidezidorrak garbitzea / berreskuratzea. Jadinazpitik Usakora doan auzo-bidea konpontzea.
- Auzo arteko bidezidorrak garbitzea / berreskuratzea. Garagaltzako kaltetatik abiatuz, Kurpide gaineko iturritxoan hasten den eta Soraluze hotelera doan ibilbidea errekuperatu.

LANDA LURZORUA

- Iturri gorriko zelaiak berreskuratu eta zaindu. Familian egun-pasa joateko egokitu.

BERDEGUNEAK

- Berezaoko hariztiko mahaia eta bankuak eraberritu edo berriak ipini.

JOLAS PARKEAK

- Ikastola ondoko parkean iturria eta aterpea egokitu eta Santa Anako belardian jarlekuak ipini.
- 8-14 urte bitarteko haurrentzat parke erakargarriak.
- Jolas elementuak gerizpetan. Ugarkalden ziburu pare bat gerizpetan jartzea, ur-txorroen parkearen beste aldeko zelai luzexkan.
- San Martin auzoko Baratzeko Pikua parkea konpondu.

KIROLA / AISIALDIA

- Olate eta Araotz arteko beheko kanala hobetu oinez, bizikletaz edo korrika doazenentzat
- Kirolgune bat estali (Olakuan, Olaiturrin, Korreos atzean edo San Martinen izan daiteke).
- Herrigunean frontoi txiki batzuk egokitu, plazakoarekin batzuetan ez delako nahikoa.
- Kalistenia parkea (jardura fisikoa egiteko barrak) San Martingo zuhaitzian edo Ugarkalde inguruan
- San Martinen ur-txorroen parke bat joko helduagoekin.

INGURUMENA

- Energia berriztagarrien komunitatea sortzeko prozesua erraztu.
- Tximeleten eremu babestua egokitu Natur Eskola inguruan.

INKLUSIOA

- Piktogramak (zeinu grafikoak) jarri udal zerbitzuetan, bide-seinaletan, denda batzuetan...

ZAHARTZAROA

- Zaharren Egoitza inguruak txukundu. Baratze parkearen artean dagoen gunea aztertu eta berdegune batzuk edo gune lasai bat egokitu, zaharrekin edo hurrekin bertara joteko.

OSASUNGARRITASUNA ETA HIGIENEA

- Aireko manganeso maila neurtu Cegasa inguruan, enpresak dituen manganeso emisioak zenbatekoak diren ikusteko eta ingurumen eta osasun kalterik eragiten duen aztertzeko.
- Txakur gorotzak jasotzeko bizpahiru kanpaina egin urtean.

OHARRA: Proposamen hauekiko eragozpen, albokalte edo kontuan hartzeko kontsideratziorik dagoela uste duten herritarrek, web orriaren bidez egin ahalko dituzte ekarpenak **uztailaren 4tik 25era**. Hartara, alor teknikoek informazio osagarria izango dute proposamenen azterketa egiteko orduan.



Zorioneko eta esker oneko daude Arregi nekazalturismo etxean, 25 urte bete baititu ostatuak. Pozik daude egindako ibilbidearekin, eta lanean jarraitzeko ilusio eta gogo handiz.

25 urteko ibilbidea egin du Arregi nekazalturismoak. Zer moduz dago une honetan?

Pozik, aurrera jarraitzeko gogoz. Duela bost urte barrualde guztia berritu genuen (logelak, bainu gelak...). Altzari eta dekorazio mailan ukitu modernoagoa eman genion, beste bi apartamentu atera genituen, irisgarritasun

arauetara egokitu genuen etxea, logelak intsonorizatu... Bezeroei asko gustatu zaie, jendeak ondo erantzuten digu eta, egia esan, pozik eta aurrera jarraitzeko ilusioarekin gaude.

Merezi izan du, beraz, duela 25 urte egindako apustuak?

Bai, bai, ez daukagu damurik. Egunean egunekoa ahalik eta ondoen eramaten saiatzen gara, ahalik eta zerbitzu onena ematen, eta, egia esan, gustura gaude eta oso eskertuta bezero guztiekin.

Nola animatu zineten duela 25 urte nekazalturismo erako ostatu bat martxan jartzera?

Gure senide batek Lazkaomendin zeukan halako ostatu bat bi urte lehenagotik, eta gustura zebilenez, hemen salgai zegoen Arregi baserria erosi eta geuk ere apustua egitea erabaki genuen. Etxeko denok ibili ginen lanean, eta urtebetean ipini genuen martxan; maiatz batean lanean hasi eta hurrengo urteko maiatzaren 1ean sartu ziren aurreneko bezeroak, madrildar batzuk.

Bina lagunentzako 6 logelare-

▼
Luis Arkauz eta Mertxe Esnaola senar-emazteek seme-alaben laguntzarekin ireki zuten Arregi nekazalturismo etxea 1997ko maiatzean, orain dela 25 urte

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

kin ireki zenuten ostatua. Zein da gaur egungo eskaintza?

Garai hartan Jaurilaritzak ez zuen uzten 6 logela baino gehiago jartzea, eta halaxe hasi ginen. Gaur egun, 6 logela doble eta 2 apartamentu ditugu, sukalde eta hidro-masajeko bainuontzi barenarekin. Logeletako bat, beheko solairuan dagoena, elbarrituentzat egokituta dago. Horiez gain, bi egongela ere baditugu, bata handia, eta bestea txikiagoa, intimitatea edo pribatutasuna nahi dutenentzat.

Otorduei dagokienez, gosaria eskaintzen dugu egunero, eta afaria, astelehenetik ostiralera: 3 sarrerako, aukeran, plater nagusia eta postrea. Etxean prestatutako janaria izaten da, garaian garaiko produktuekin, eta, ahal dela, etxekoekin. Tarteka, bezeroek eskatutako jaki bereziak ere prestatzen ditugu.

Ostatua ireki zenutenean, duela 25 urte, 5.000 pezeta balio zuen bi pertsonentzako logelak, gau bakoitzeko. Gaur egun?

Zuzenean hona deituz gero, 66€; Booking-etik erreserbatuz gero, 72€. Suite erako apartamentuak, hiromasaje eta guzti, 110€ zuzenean hartuta, eta 121€ Booking bidez.

Prezioak aldatu dira pittin bat; turismoa bera aldatu al da?

Aldatu dena, batez ere, orain dena Interneten dagoela. Lehen, hona iristeko ere nahikoa lan izaten zuen jendeak. Askotan gertatzen zen, turistak Arregi ezin topaurik herrian galdezka hasi, eta herritarrek kotxea hartu eta honaino laguntzea. Askotan. Jendea oso ondo portatu izan



Iñaki Arkauz da egun Arregi ostatuaren arduraduna. Ostalaritza ikasketak eginak ditu Iñakik, eta bera aritzen da sukaldari lanetan ere.

Lehen, askotan gertatzen zen turistak Arregi ezin topaurik herrian galdezka hasi eta herritarrek kotxea hartu eta honaino laguntzea. Gaur egun guzjak asko aldatu dira Interneti esker



da eta eskertu beharrean gaude.

Gaur egun, Interneti esker, jendea zuzenean iristen da, eta hona iritsi aurretik badaki etxea nolakoa den, logelak zelakoak, ze zerbitzu eskaintzen dugun... Alde horretatik asko aldatu da.

Internet aipatu duzunez, erreserbak online egiteko plataformetan 9,3ko nota ipintzen diote bezeroek zuen ostatuari. Erreparatzen al diozue horri?

Bai. Batez ere puntuazio orokorrari. Komentarioak ez ditut irakurtzen, puntuazioa hor mantentzen den bitartean. Behera doala ikusiz gero, orduan irakurri beharko ditugu, baina bestela ez.

Zein da halako puntuazio altua jasotzeko sekretua?

Etxeko tratua ematea, etxean bezala sentiaraztea bezeroei. Askotan, sukalderaino sartzen zaigu jendea, zer janari dagoen ikustera, eta bertan gelditzen dira kontu-kontari. Askok esaten digute etxean bezala sentitzen

direla, eta horretantxe saiatzen gara gu. Garbitasuna ere azpimarratzen dute askok, eta, egia esan, horretan ere ahalegin berezia egiten dugu.

Bestalde, bezeroak gidatzen ere saiatzen gara, Oñatin bertan edo inguruan ikusi eta egin daitkeenari buruzko informazioa ematen, eta otorduetan produktu naturalak eta kalitatezkoak erabiltzen ditugu; edozer ematen dugula ere, kalitatezkoa, eta sukaldean goxatutakoa. Normalean, bezeroek etxeko janaria nahi izaten dute.

Zein izaten da zuenera datozen turisten profila?

Gehien bat bikoteak izaten dira. Uda sasoiari Espainia hegoaldekoak izaten dira asko, berotik ihesi datozenak. Frantziar eta alemaniarrek ere bai.

Uda sasoiak kanpora, hemen ingurukoez gain, madrildarrak eta kataluniarrak etortzen dira, batez ere.

(Jarraitzen du)

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

Zeren bila etorri ohi dira?

Lasaitasun bila. Askok mendira jotzen dute (Urbia-Aizkorri aldera bidaltzen ditugu asko), edo, bestela, hiriburuetara joaten dira (Donostia, Bilbo...). Egia esan, Oñati oso ondo kokatuta dago Euskadiko erdigunean; bertan dituzu, bai mendia eta baita hondartza ere nahi izanez gero.

Bestalde, ohikoa izaten da Euskadi ikustera etortzen diren turistak Oñatin ere geldialdia egitea, hemen ere badagoelako zer ikusi.

Zein izaten da urte sasoi onena?

Uda sasoi asko luzatu da. Ekaina erdialdera hasi eta iraila-urrian ere mugimendu asko egoten da. Eta udalditik kanpora dauden zubi eta jai egunetan ere betetzen dira logelak.

Aste Santuan eta Gabonetan jende berbera etortzen zaigu joandako 11-12 ureteetan.

Turismo mailan ez ezik, enpresekin ere lan asko egiten duzue, ezta?

Bai, inguruko enpresekin lan asko egiten dugu astegunetan. Gustura etortzen dira, nonbait, eta geu ere oso pozik gaude, noski. Oso hurbileko harremana dugu askorekin.

Pandemia urteak gogorrak

ESKAINZA 6 logela bikoitz eta suite erako bi apartamentu txiki, hidro-masajearekin, eskaintzen ditu Arregi nekazalturismoak (www.casaruralarregi.com).

izan al dira?

Gogorrak baino, luzeak esango nuke. Gurea, azken batean, familia-negozioa da, lan gehienak geuk egiten ditugu eta, beraz, ez dugu hainbeste sufritu. Itxialdiekin asko murriztu zen mugimendua eta geuk ere igarri genion, jakina, baina etorri ahal izan denean, lanagatik edo beste arrazoiren batzuegatik, jendea etorri da. Ez zaigu hain gogorra egin.

» **Hurbileko tratua, etxean bezala sentiaraztea, eta garbitasuna dira gure bezeroek azpimarratzen dituzten alde positiboak**

Udala ari da, sektoreko eragileekin batera, Oñatin turismoa sustatzeko ahaleginean. Nola ikusten duzu herria turismoari begira? Zertan hobetu daiteke?

Oro har nahiko ondo ikusten dut. Beharbada, ahalegina egin beharko litzateke teknologia berriak erabiliz Oñatik dituen baliabideak (mendi nahiz bizikleta ibilbideak, ondare artistikoa...) turisten eskura jartzeko. ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Udaldiaz familia giroan gozatzeko 7 plan

HERRIGUNE HISTORIKOAN

TURISMO BULEGOA ETA SAN MIGEL ERROTA

Erreserbak: 943783453 / Egutero zabalik: 9:30-14:00 / 15:30-19:00
Ertaroko (XV) San Migel errota ikusgai bulego orduetan. Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ('Oñatiko altxorrak') ikusteko bisita gidatuak uztailako asteburuetan, jaiegunetan eta abuztuan egutero (13:00).

TXOKOLATEIXIA

Erreserbak: 605763595

Bisita gidatuak uztailan eta abuztuan, aurrez erreserba eginda. Txokolatearen jatorria, osaera, ekoizpena eta historia ezagutzeko aukera.

ARRIKRUTZEKO KOBAK ETA NATURA

ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOKA

Erreserbak: 943082000/arrikruz@onati.eus

Egutero zabalik (10:00-14:00 / 16:00-18:00). 'Espeleo-Arrikruz' bisita bereziak (uztailak 30 eta abuztuak 7). 'Espeleotxiki' (uztailak 17, 23 eta 31, eta abuztuak 6, 13, 20 eta 27).

GOMIZTEGI BASERRIA

Erreserbak: 943251000 /info@gomiztegi.com

Gazta salmenta eta baserrira bisita: artzaintzaren historia, artzain txakurren erakustaldia eta gazta dastaketa. Bisita gidatuak, erreserbapean.

POTTOKALEKU, EUSKAL ZALDIA

Erreserbak: 670274461 /jelorzarza@hotmail.com

'BIZI POTTOKA' bisita gidatuak erreserbapean.

ARANTZAZU ETA PARKE NATURALA

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA


Erreserbak: 943796463 / 943718911 /infoturismo@debagoiena.eus

Bisita gidatuak egutero, 10:30 eta 15:30 (euskaraz), 12:30 eta 17:00 (gaztelaraz).

ARANTZAZUKO PARKETXEA

Erreserbak: 943782894 / arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

Uztaila eta abuztuan (asteartetik igandera) zabalik (10:00-14:00 / 16:00-18:00). Kantauri eta Mediterraneo isurialdeak banatzen dituen Aizkorri-Aratz natur parkea ezagutzeko aukera, 240km baino gehiagoko bide homologatuekin. Bisita bereziak eta orientazio jolasak familian.



Turismoa eta euskara eskutik helduta



Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen 'Bertatik Bertara' kanpainarekin bat egin du Udalak aurten ere, eta oinarritzko hiztegitxoak duten mahai-gainekoak banatu ditu jatetxe eta ostatuetan, gure herriaren aberastasunetako bat euskara dela erakusteko.



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Emakume sortzaileen lana bistaratzea helburu

Udalak diru sail berri bat sortu du herriko emakume sortzaileen lanari ikusgarritasuna emateko asmoz

Lehen edizio honetan Irazan taldearekin sinatu du hitzarmena, ***Bi aldiz erditu zinen nitaz, Ama*** nobelan oinarritutako antzezlanaren sortzeko



EMAKUMEAK PROTAGONISTA

Irazan taldeko Amaia Castañeda eta Irene Balzategi arduratuko dira antzezlanaren sortu eta taularatzeaz. Biak ala biak ari dira antzerki ikasketak egiten

Herriko emakume sortzaileen lana sustatu eta ikusgarritasuna emateko helburuarekin, 10.000 euroko diru sail bat sortu zuen Udalak 2022ko aurrekontuetan, eta aukera ezberdinak aztertu ostean, lehen edizio honetan Irazan antzerki taldearekin hitzarmena sinatzea erabaki du, Alaine Agirreren ***Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*** nobelan oinarritutako antzezlanaren sortzeko.

"Diru hori nola edo zertara bideratu erabakitzeko aukera ezberdinak aztertzen ibili gara", azaldu digu udaleko Kultura batzordeko buru Iñaki Olalde. "Deialdi irekia egitea zen aukera bat, formakuntza tailer bat antolatzea, sortzaileei zuzendutako aholkularitza zerbitzua... Horretan ari ginela, Irazan taldearen proposamen bat iritsi zen udaleko Berdintasun sailera, eta antzerkiarekin lotura zeukala ikusita, eta gure helburuekin bat zetorrela kontuan hartuz, horrekin aurrera



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



egitea erabaki dugu lehen edizio honetan".

Hitzarmenaren arabera, Irazan taldeak antzeztan bat sortuko du Alaine Agirreren **Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama** liburua oinarri hartuta, eta Udalak proiektu artistikoaren sortze prozesuko (gidoia, produkzioa, komunikazioa, sustapena...) gastuei aurre egiteko dirulaguntza (8.000€) emango dio.

Irazan taldeko Amaia Castañeda eta Irene Balzategik hartuko dute sormen prozesuaren ardura. Antzerki ikasketak egiten ari dira biak ala biak. Irazan Gunean sortutako *Supituki* taldean aritu zen Castañeda, eta *Ventrículo Veloz* taldean ari da egun, Madrilén interpretazioa ikasten duen bitartean. Balzategik arte-terapia eta arte-komunitarioko ikasketak egin ditu, eta Donostiako TAE antzerki eskolan dihardu egun.

EMAKUMEAK ARDATZ

Emakumeak ardatz izango dituzten proiektu artistikoak sustatzea da Udalaren asmoa. "Ahal dela, proiektuan parte hartuko duten pertsona guztiak, edo ahalik eta gehien, emakumeak izatea. Ez bakarrik eskenatokian ikusiko ditugun aktoreak, baita gidoigileak, zuzendariak, soinu teknikariak, argiztapenekoak, produkzio arlokoak...", azaldu digu Olalde.

Antzezlana bera izango da Udalak eta Irazanek sinatu duten hitzarmenaren azken emaitza, baina, tartean, sormen prozesua ireki, elikatu eta herritarrekin partekatze beste zenbait ekintza antolatze asmoa ere badago. Hala, adibidez, udal liburutegiko eta Jabetze Eskolako irakurle taldeekin elkarlanean, Alaine Agirreren nobela irakurri eta landuko duen talde bat sortzeko asmoa dago, antzeztanarako gidoiaren azken bertsioa idatzi aurretik.

Horrez gain, Alaine Agirreren hitzaldi bat, herritar guztiei irekia, eta emakume sortzaileei zuzendutako tailer edo mahai ingururen bat antolatzea ere ez



» INAKI OLALDE
Udaleko Kultura batzordeburua

"Edozein arte adierazpenetan diharduten herriko emakumeen lana sustatzea eta dagokion ikusgarritasuna ematea da sortu dugun diru-sail honen helburua"

du baztertzen kultura batzordeko buruak. Udalak 2.000€ bideratuko ditu ekimen honekin lotutako ekintzetara.

Maiatzaren 30eko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, hitzarmena sinatzea, eta berehala hasiko dira lanean

Irazan taldekoak. "Asmoa da 2023ko udaberri-udan egitea antzeztanaren estreinaldia", esan digu Olalde. "Bi emanaldi egitea da asmoa; bata goizez, herriko ikastetxei zuzenduta, uste dugulako Alaine Agirreren testuak dituen eduki eta ezau-garriengatik interesgarria izan daitekeela eskoletan lantzeko, eta arratsaldean publiko orokorrari zuzendutako estreinaldia egingo litzateke".

JARRAIPENA IZANGO DU

Emakume sortzaileen lana sustatzeko ekimen hau geratzeko etorri dela azaldu du Olalde. "Ez dakigu zein formatutan garatuko den, baina gure asmoa da diru-partida hau hurrengo urteetan ere mantentzea, herrian dauden emakume sortzaileek ikus dezaten badaudela aukerak eta Udala prest dagoela baliabi-deak jartzeko".

"Ikus-entzunezko arteetan edo bestelako arte adierazpenetan diharduten emakumeen lana sustatzea da helburua. Beraien lanei dagokien ikusgarritasuna ematea, eta emakumeen presentzia eta partaidetza sustatzea Oñatiko kultur ekitaldietan eta sorkuntzan", gaineratu du Kultura zinegotziak. ■

"Hasieratik maitemindu gintuen Alaine Agirreren nobelak"

2016ko Joseba Jaka bekari esker idatzi zuen Alaine Agirrek **Bi aldiz erditu zinen nitaz, Ama** nobela. Gauza asko biltzen dituen testua da: egileak bere amari eskainitako maitasun-kanta luze bat; familia osoaren historia eta istorio sorta txirikordatu bat; gaixotasun baten etorkiaren bila haurtzaroko oroitzapenetan barrena egindako introspektzio ariketa bat; ama izan ezin eta ahal eta nahi izatearen edo ez izatearen inguruko gogoeta zalantzazko, sigi-sagatsu bat...

"Nobela honetan kontatzen dena gutxitan irakurri izan dugu eta hasieratik maitemindu gintuzten Alaineren hitzek", adierazi dute Irazan taldeko kideek. "Ama eta alaba baten arteko harremanari emandako tokia, amatasunaren gatazka, familiarteko harremanak, garapen pertsonala... Eta guztia lehenengo pertsona kontatua, gaixotasun psikologiko bat duen protagonistaren eskutik. Honek taula gainean lekua behar zuela ikusi genuen segidan, izan ere gutxitan ikusi ditugu horrelako istorioak eszenatokietan. Horregatik ezinbestekoa ikusi dugu testu hau landu eta antzeztanaren bidez bizia ematea pertsonaia eder hauei". ■



"Merezi du testu hau landu eta antzerkiaren bidez bizia ematea pertsonaia eder hauei"

Greziako errealtate migratzaileak

lehen pertsonan eta genero ikuspegitik

Grezian migrazio prozesuetan harrapaturik dauden pertsonen egoera ezagutzera emateko ikerketa lana burutu du EREI elkarteak, asilo-eskatzaile, errefuxiatu eta migratzaileei egindako elkarrizketetan oinarrituta



Miren eta Arantzazu Zubeldia Plazaola dira EREI elkartearen sortzaileak eta Greziako errealtate migratzaileen inguruko azterlana burutu dutenak

Miren eta Arantzazu Zubeldia Plazaola ahizpek, **EREI Elkartasunerako Elkarteen** sortzaileak, ikerketa lan bat burutu dute Greziako errealtate migratzaileak lehen pertsonan eta genero ikuspegitik ikusarazteko helburuarekin. Arantzazu eta Miren askotan egon dira Grezian, boluntario gisa, errefuxiatuekin lanean, eta esperientzia horri esker ehundu ahal izan duten sarea baliatu dute asilo-eskatzaile, errefuxiatu eta migratzaileekin elkarrizketa pertsonalak egiteko.

Hiru atal nagusi ditu EREI elkarteak egindako lanak. Alde batetik, Greziako hiru gunetako (Lesbos, Atenas eta Ioanina) egoera aztertu du. "Lesbos-en eta Egeo itsasoko gainerako uharteetako migrazio-errealitatearen ezaugarri nagusietako bat itzulketak dira, giza eskubideak urratzen dituen legez kanpoko politika", adierazi dute. "Atenas eta Attica eskualdeetan daude egun asilo-eskatzaile gehien (10.000tik gora), eta horietako asko etxerik gabe aurkitzen dira hiriburuan".

Bestalde, fluxu migratzaileen atzean dauden arrazoak ere az-

tertu ditu EREI elkarteak. "Kapitalismoak eta kolonialismoak halabeharrezko eragina dute, mundu mailan dauden desberdintasunak areagotzen dituztelako", azaldu dute. "Bestalde, patriarkatuak migrazio-fluxuak moldatzen ditu, genero desberdintasunak eta emakume nahiz LGTBQ+ pertsonen eskubide urraketa espezifikoak eraginez".

Hirugarren atalean, migrazio-testuinguruetan sortutako ekimenak aztertu dituzte. "Ezagutzak eta trebetasunak partekatzea, edota errealtate migratzaileak zabaltzea helburu duten ekimenak ezagutu nahi izan ditugu. Migrazio testuinguruetan erresistentziarako eta elkarrekiko ikaskuntzarako tresnak dira, eta arreta berezia jarri dugu emakumeek sortutako ekimenei, beraien eskubideak defendatu eta gizarte patriarkal batean espazio seguruak eskaintzeko borrokatzen diren ekimenei batez ere".

FANZINEA ETA PODCAST-AK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du EREI elkarteak ikerketa hau egiteko, eta 20 orrialdeko fanzine edo aldizkari batean laburbildu dute lanaren emaitza. ereielkartea.org atarian egongo da laster ikusgai.

Joan den astean jendaurrean partekatu zituzten egindako lanaren emaitza eta ondorioak, kultur etxean eskainitako hitzaldi-solasaldi baten bidez, eta elkarriketetan parte hartu zuten Masure eta Desire-ren online konexio zuzenaren bitartez. Aurrerantzean ere zabalkundea egiten jarraitzeko asmoa dute, batez ere ikastetxeetan. "EREI elkarteak sortu aurretik hasi ginen eskolatan lanean. Zuzeneko online konexioak egiten ditugu Europako mugetan harrapatuta dauden pertsonekin, eta ikasleentzat oso aberasgarriak izaten dira. Eta orain egin dugun fanzine hau ere uste dugu lanketa egiteko material egokia izan daitekeela, fluxu migratorioen atzean dauden arrazoiak eta herrialde ezberdinetako (Siria, Irak, Afganistan, Somalia, Balutxistan, Kamerun...)



HITZALDI-SOLASALDIK IKASTETXEETAN

EREI elkarteak ordezkariek herriko ikasleekin ere izan dira, Grezian harrapaturik dauden errefuxiatuen errealtatearen berri ematen, zuzeneko konexioen bidez. Txantxiku ikastolan egindako hitzaldi-solasaldian Payman-en (Irakeko Kurdistangoa) testigantzak entzun zituzten, eta Elkar Hezi ikastetxeetan Fatemeh eta Tooryalay afganiarrenak.



egoera eta errealtateak jasotzen dituelako".

Fanzineaz gain, Lesbos-en bizi diren pertsona errefuxiatuek lehen pertsona kontatutako istorioen podcast-ak ere zabaltzen ari da EREI elkarteak, *Latitude Adjustment Podcast Academy* proiektuarekin elkarlanean. Beraien webgunean daude entzungai, euskaraz eta gaztelaniaz.

ETA EUROPA ZER?

Grezia errealtate migratzaileak aztertu ondoren, Europako harrera-herrialdeetako egoera aztertzea da orain EREI elkartearen asmoa. "Alemania eta Frantzia izan ohi dira errefuxiatu gehien jomuga, eta hona iritsi ondorengo errealtatea ezagutu

TESTIGANTZAK



Zure alboan informazio nahikorik ez duen edo pertsonak beraien nazionalitateagatik epaitzen dituen norbait badago, esaiotzu denak berdinak garela. Muga honek soilik, leku geografiko honek, ez du ezberdintasunik markatzen." (Masure)



Turkiak eta Europak pertsonen bizitzarekin jolasteari utzi beharko liokete. Eta jendeak ez luke kontuan hartu beharko komunikabideetan entzuten duen guztia, orain egoera askoz hobea dela. Hori ez da egia. Europak zerbait egin behar du, ez luke Grezia bakarrik utzi behar." (Desire)



ereielkartea.org atarian egongo da laster ikusgai EREI elkarteak kideek argitaratu duten fanzinea. Burutu duten ikerketa lanaren emaitza nagusiak jaso dituzte bertan laburbilduta.

eta ikusarazi nahi genuke, errefuxiatuei beraiei ahotsa emanez, beti ere".

Azken batean, zuzeneko informazioa ematea da EREI elkartearen helburua. "Prozesu migratzaileen inguruan iristen zaigun informazioa oso distorsionatuta dago, eta ez dugu behar bezala ezagutzen pertsona migratzaile eta errefuxiatuen errealtatea. Eta garbi dago fluxu migratorioak areagotuz joango direla mundu mailan dauden desberdintasun sozial eta ekonomiko ondoz, eta baita klima aldaketaren ondorioz ere. Elkarbizitzen ikasi behar dugu eta, horretarako, ezagutza ezinbestekoa dela uste dugu, gure artean ditugun aurreiritziak aldatzen joateko". ■

GeoOñati ataria herritarren eskura

Oñatiri buruzko informazio geografikoa eta ortoargazkiak modu errazean kontsultatzeko aukera ematen duen aplikazioa jarri du Udalak webgunean

Oñatiko mapak, ortoargazkiak (airetik ateratako irudiak) eta informazio geografikoa kontsultazea inoiz baino errazagoa izango da orain, Udalak bere webgunean herritarren eskura ipini duen **GeoOñati** atariari esker.

Jaurilaritzaren *GeoEuskadi* plataforman du oinarria *GeoOñati*-k. Euskadiko informazio geografikoaren arloan erreferentziatzeko tresna da *GeoEuskadi*, eta Oñatiko mugetara ekarri du aplikazioa Udalak, herritarren interesekoa izan daitekeelakoan.

Askotariko informazioa modu errazean eskuratzeko aukera eskaintzen duen tresna da *GeoOñati*. Aplikazio ugari ditu. Ikusgarriena, beharbada, garai ezberdinetako ortoargazkiak konparatzeko aukera da; xagua ezker-eskuin mugitze hutsarekin, 1940ko hamarkadatik hona herria nola aldatu eta garatu den ikus daiteke.

Horrez gain, distantziak eta azalerak neurtu, herriko puntu jakin baten koordinatuak eta altuera ezagutu, baso eta errekei buruzko informazioa jaso, edota uholde arriskua duten guneak identifikatzeko aukera ematen du.

Adibide batzuk baino ez dira. Oso tresna erabilgarria eta erabilerraza da, eta aurrerantzean udal webgunean (www.oñati.eus) izango dugu eskura.



www.oñati.eus webgunean dago eskuragai **GeoOñati** ataria



San Lorentzoko 10. areako irisgarritasun lanak Morga S.L.-k egingo ditu

Asfaltados y Construcciones Morga S.L. enpresa bizkaitarrari esleitu dizkio Udalak San Lorentzoko 10. areako urbanizazioa berritzeko lanak, 381.069 €-tan (+BEZ).

A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera, San Lorentzo auzuneko 50-51-52 eta 56-57 zenbakien inguruko oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak egokitu dituzte, irisgarritasun arauetara egokitu edo, araua guztiz bete ezin denean, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko asmoz. Azken orduko aldaketarik ez bada, uztailaren 18an hasiko dira lanak, eta 22 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

Bigarren aldiz atera dira lizitaziora Lezesarriko oinezkoen bidea egokitzeko lanak

Aurreneko deialdian enpresarik aurkeztu ez zela ikusita, aurrekontua jaso eta lizitazio prezioa 317.714 eurotan finkatuta (aurreneko deialdian baino 74.000€ gehiago), Udalak bigarren aldiz atera ditu lizitaziora Lezesarri auzorako oinezkoen bidea egokitzeko lanak. Eskaintza ekonomikoa izango da, hain zuzen ere (100 puntutik 75) esleipena egiteko irizpide nagusia. Lanak egiteko epea bere horretan mantendu da (3 hilabete). Uztailaren 12ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

Hiri Antolamendu Planari buruzko informazioa errekalamatu dio EAJk udal gobernuari

HAPOari buruzko informazioa eman gabe urtebete daramala dio EAJk

Maiatzaren 10ean urtebete bete zen udal gobernua Oñatiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aurrerapena aurkeztu zuenetik, eta orduz geroztik informazio gehiago eman ez izana egotzi dio EAJk EH Bilduri. "Zein faseetan dago Plana? Nola doa HAPOaren idazketa?", galdetu dute jeltzaleek, komunikabideetara igorritako prentsa ohar bidez.

Jeltzaleek gogorarazi dute HAPOaren aurrerapena "anbizioz gabea eta ilusiorik transmititzen ez zuen dokumentua" irudituta zitzaiela, eta hainbat iradokizun eta ekarpen aurkeztu zituztela, baina gobernu taldeak ez zituela aintzat hartu.

HAPOak duen garrantzia kontuan hartuz, EH Bilduk egindako planteamenduarekiko bere kezka berretsi du EAJ-k, batez ere hiru arlotan: bizitegi-lurzorua, industria eta kirol ekipamenduak.

Etxebizitzetara dagokienean, alderdi jeltzaleak ez du uste planteamendu egokia denik datozen urteetako etxebizitzetara eraikuntza Cegasa eta Eroski-Berezaoko lurzoruetara bideratzea. "Bideragarritasun konplexuko eremuak dira, epe luzerako estrategia eskatzen dute eta horrek 15-20 urtera begira jartzen gaitu. Irtenbide bat behar



BIZITEGI-LURZORUA

► **EAJren ustez errorea da Garay finkako proposamena ez onartzea, eta datozen urteetarako etxebizitzetara eraikuntza Cegasa eta Eroski-Berezaoko lurzoruetara bideratzea**

KIROL EKIPAMENDUAK

► **Jeltzaleen ustez Berezaoko futbol zelai berriarentzako kokapenik onena, eta baita kanpoko igerilekuak egiteko eremu aproposena ere**

dugu orain, Kasablankan, Kurtzekuan eta San Martinen planteatutako etxebizitza gutxietatik haratago".

Ildo horretan, EAJk erroretzat jo du Garay finkako proposamena onartu ez izana. "Uste dugu, eremu hori garatuko balitz Oñatirentzat funtsezko pieza izango litzatekeela, hiri-sekuentziari jarraipena emango liokeelako, San Lorentzo eta Errekalde arteko tunelaren puntu beltza kenduko litzatekeelako eta, batez ere, etxebizitza babestu eta tasatu ugari egingo liratekeelako".

FUTBOL ZELAIA BEREZAON

Kirol ekipamenduei dagokien, futbol zelai berriarentzako kokapen onena Berezaoko delako berretsi du EAJk. "Loka-

lizaziorik onena dela pentsatzen jarraitzen dugu, ondo komunikatuta dagoelako, gertu dagoelako eta Aloña Mendik bere beharretara egokitutako zelaia izan dezan beharrezko instalazioak egiteko aukera ematen duelako: harmailak, aldagelak, aparkalekuak... Gainera, hainbeste urtetan eskatutako kanpo-igerilekuak egiteko eremu aproposa ere badela uste dugu".

EAJk gogorarazi du HAPOa dela Udal baten tresna nagusietako bat, hirigintzari buruzko ibilbide-orria, eta ildo horretan adierazi du Oñatiren garapenean gidatuko gaituen estrategia integralik gabe jarraitzen dugula. "Horregatik, ekarpenak egiten jarraituko dugu, Oñatiren etorkizuna guztion artean adostu behar dugulako. ■

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAOKO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



Erosketak egiteko 50 orga zozkatuko ditu TXANDAK

Oñatin erositzen duzu, Oñatin bizi! kanpaina berria jarri du abian Txanda dendarien elkarteak. Hala, herriko dendetan kontsumitzen duten bezeroen artean lema hori daramaten 50 erosketa orga zozkatuko ditu. Ekainean zehar erosketaren bat egiten duten bezero guztiak sartuko dira zozketan, eta uztailaren 2an egingo da sari banaketa. Orgen zozketaz gain, tokikozale diren guztiek oparitxoa jasoko dute ekainean erosketak egiterakoan. Herrian erostea herria bizirik mantentzeko zein garrantzitsua den zabaldu nahi da kanpainaren bidez.

TXANDA TXARTELA. Bestalde, Txanda txartelaren erabiltzaileei zuzendutako deskontu kanpaina ere jarri du abian Txanda elkarteak. Hala, erosketak Txanda txartelarekin ordaintzen dituzten bezeroen artean 10€-ko deskontuak (1.000 eurora arteko ausazko deskontuak hile bakoitzean) aplikatuko dira ekainean, irailean eta azaroan.



Arzuaga eta Olalde omendu dituzte Jubilatuen Egunean

Bi urteko etenaren ostean, herriko jubilatuen eguna ospatu zen ekainaren 26an. Asun Arzuagak (91 urte) eta Jabier Olalde (93 urte) jaso zuten txapela, zapia eta oroigarri bana, udal ordezkarien eskutik. Aurten, berritasun moduan, parrokiari egin zen omenaldia. Dantzariak eta bertsolariak ere parte hartu zuten, eta ondoren klaustroan egin zen luntxa eta opari zozketa.

BANKA DIGITALA eta MUGIKORREN erabileraren inguruko bi tailer antolatu ditu Pake Lekuk

Pake Leku elkarteak, Rural Kuxarekin elkarlanean, adineko pertsonei zuzendutako bi tailer antolatu ditu uztailerako.



BANKA DIGITALA / Uztailak 7

Uztailaren 7an Banka digitalari buruzko tailerra egingo da Pake Lekun (9:30etan). Banku edo kuxako eragiketak egiteko Internetek eta telefono mugikorrek eskaintzen dituzten aukerak landuko dira bertan. Parte hartzen duten guztiek opari bana jasoko dute.

MUGIKORREN ERABILERA / Uztailak 14

Uztailaren 14an mugikorren erabilerari buruzko tailerra egingo da Pake Lekun (9:30). *WhatsApp*-a erabiltzen, bideoak egiten eta mugikorrek dituzten beste aplikazio praktiko batzuen erabilera irakatsiko da bertan. Parte hartzen duten guztiek opari bana jasoko dute.





Aparkaleku urdinak errespetatzearen garrantzia azpimarratu du Trautik

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, TRAUTI elkarteko kideak kalera irten ziren ekainaren 25ean, elkartearen 10. urteurrena ospatu eta kontzientziazio lana egiten jarraitzeko.

Esku orriak banatu zituzten, Trauti elkartearen helburuak eta hamar urte hauetan egindako lana gogoratzeko, eta aparkaleku urdinak errespetatzearen garrantzian egin zuten azpimarra beste behin. Aparkaleku hauek berebiziko garrantzia dute mugikortasun mugatua duten pertsonentzat, eta oso inportantea da gune horiek eta transferentzia egiteko espazioak errespetatzea, goiko argazkian erakusten den moduan. Aparkaleku horiek erabiltzeko txartelak egoki erabiltzearen garrantzia ere azpimarratu zuten.

'Eskola jasangarria' ziurtagiria jaso du Urgain-Errekalde eskolak



Urgain-Errekalde eskolak ingumenarekiko duen konpromisoa eta azken urteetan egindako lana aitortzen du ziurtagiriak. Berau jaso ahal izateko kanpo auditoria gaititu dute, berrikuntzaren, kalitatearen eta ingurumenarekiko konpromisoaren alde egin duten apustua saritu zaielarik. Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik jaso zuten Eskola Jasangarria ziurtagiria.


'Euspot' lehiaketan irabazle



Euskara, sormena eta publizitatea uztartzen dituen *Euspot* lehiaketako lehen saria (1.000€) irabazi dute Jone Markuleta, Danel Teran eta Irene Azkargortak, *Kooperatibismoa gara!* lanari esker. Gazteak kooperatibismora gerturatzea zen helburua aurtengo spot-etan.

Ignaziotar lurraldea 360°

Hiru tenpluen ibilbideko ondarea deskubritzeko tresna digital berri eta ikusgarria



500 urte dira aurtien Loiolako Ignaziok sorterritik Manresarainoko erromesaldia (Ignaziotar Bidea) egin zuela, eta bosgarren mendeurrenarekin batera tresna digital berria plazaratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Iraurgi Berritzen garapen agentziaren laguntzarekin, Ignaziotar bideko lehen hiru etapek lotzen dituzten hiru tenpluak (Loiolako basilika, Antiguako basiliza eta Arantzazu santutegia) modu interaktiboan bisitatu ahal izateko.

Bereizmen handiko 16.600 argazki erabili dituzte tresna ikusgarri hau sortzeko, eta aipatutako hiru tenpluetako ondarea sekula ikusi gabeko angeluetatik ikusteko aukera eskaintzen du, informazioa jasotzen dugun bitartean. Ez dago App-rik deskargatu beharrik, eta tierraignaciana360.com webgunean dago erabilgarri tresna digital berria lau hizkuntzatan.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

HEMEROTEKA

Arnasa

Andoni Egaña / Ekainak 4

Mendiz inguratutako toki berdina delako egiten zaigu akaso hain eder Urbia. Ez dakit. Berdintasunaren paradigma izan daiteke, Aita Lasak 1967ko San Joan egun hartan elizkizuna hasi zuen moduan hasi zuenetik. Ezaguna da pasadizoa. Manuel Fraga Iribarne, orduan Espainiako Turismo ministro zena igo zen Urbiako ermitara —Land Roverrean, jakina— tokia ikustera, haranzko teleferiko bat jartzeko asmoa ba omen zegoen eta... Igandero mezetara joaten zitzaizkion artzainak eta ministroa berdinduz konpondu zuen Aita Lasak protokoloari derrigor atxiki beharra: «Excelentísimo señor ministro, excelentísimos señores pastores...».

Leku berdina da Urbia. Eta berdintzailea. Han ez dira ministro-artzainak bereizten. Pobre eta aberatsak ere ez. Hara heltzean, aski da elastikoa aldatzea, izerditua erantzi eta jantzi lehorra. Hara iristean ez dago, beste hainbat lekutara heltzean bezala, norbere azala bera —izaera— aldatu beharrik. Han ez da, segur aski, beste inon baino hobeto jan-edango. Baina baietz irudituko zaizu.

Orain, Urbiako fonda itxi egin dute. Etxeko sentitzeko toki bat gutxiago aurrerantzean. Eta hori bai dela desberdina! Douglas lurrin-dendak ere ixtera doazela esango du norbaitek. Baina gauza bat da lurrin falta eta bestea arnas eskasia...

SAN MIGEL JALETAKO DEIALDIAK

TALO TABERNA

Herri Eguneke talo taberna kudeatzeko prest dauden taldeek uztailaren 5a baino lehen eman behar dute izena kultura.idazkaritza@onati.eus helbidean edo 943780353 zenbakian. Beraien ardura izango da tabernaren horniketa eta ustiaketa osoa, eta lortutako irabaziak ere taldearentzat izango dira.

HERRI BAZKARIA

Herri Eguneke bazkarirako mahaiak atondu eta bazkaria zerbitzatzeko prest dauden taldeek uztailaren 5a baino lehen eman behar dute izena kultura.idazkaritza@onati.eus helbidean edo 943780353 zenbakian. Gutxienez 40 pertsona osatutako taldea izatea eskatzen da, eta 13:00etarako kiroldegi aurrean egon beharko dute.

ARTISAU AZOKA

Urriaren 1ean ospatuko den Herri Eguneke artisau azokan parte hartu nahi duten artisauek uztailaren 4tik 15era arteko epea dute eskaerak aurkezteko. Udalaren webgunean eskuragai

egongo den formularioa bete beharko dute, artisau ziurtagiria eta norbere lanaren inguruko informazioa eta argazkiak aurkeztuz.

Lanaren kalitatea hartuko da kontuan, eta herriko artisauek lehentasuna izango dute (30 postuetatik 20 egongo dira herritarren artean banatzeko, eskaera baldin badago). Lan edo produktu ezberdinak eta originalak izatea ere baloratuko da, aniztasuna bermatzeko, eta azokan bertan lan egiteko modua erakustea ere bai. Aurreko urteetan parte hartu ez duten artisauek lehentasuna izango dute.

Uztailaren 26tik aurrera jakinaraziko da zein izan diren aukeratuak.

SALMENTA POSTUAK

Herri Eguneke azoka gunean salmenta postua jarri nahi dutenek uztailaren 18tik irailaren 12ra bitartean egin behar dute eskaera, udalaren webgunean eskuragai egongo den formularioa bete eta dagokion dokumentazioa aurkeztuz. Beharrezkoa bada, zozketa egingo da eskatzaileen artean. Postua (2m.) muntatzeko materiala norberak eraman beharko du.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

OHAR ETA DEIALDIAK

• 1980an JAIOTAKOEN KINTADIA

80an jaiotakoek kinttadia egingo dogu irailaren 10ean, zapatua. Izena emun bihako da uztailaren 31a baino lehen, 50 euro ordainduta ES47 3035 0005 36 0051126744 kontu zenbakian. Ordainketa egitterakuan izena eta bi abizenak ifini. Oñatin jaixotakuez gain, gaur egun Oñatin bizi dianak be gonbidatuta dauz!

1980kinttuak@gmail.com / Facebook: Larogeiko kinttuak

• 'OSTEGUNAK ETXERA' EKIMENA

SAREk eta Gaztetxeak antolatuta, uztailako ostegunetan kontzertuak egongo dira Antixenan, presoentzako dirua biltzeko. Kontzertuak 21:30etan hasiko dira eta sarreak 3€ balioko du. Ikusi egitaraua agendan. Ostegunetako pintxopoteoa luzatu nahi dutenentzako aukera paregabea.

• 'ONGI ETORRI BASERRIRA'

Gipuzkoa eta Bizkaiako 30 baserri eta bertako nekazal ustialetuak ezagutzeko aukera egongo da uztailaren 8 eta 9an, 'Ongi etorri baserrira!' ekimenari esker. Landa-guneari balioa ematea, barnealdeko turismoa sustatzea eta herri gastronomia goratzea dira ekimenaren helburuak. Kalitatezko produktuak sortzeaz gain, ingurumena eta paisaia zaintzen egiten duten lanagatik aitortza egitea baserritarrei. Oñatiri dagokionez, Gomiztegi bisitatzeko aukera egongo da

uztailaren 8an (11:00-14:00). Uztailaren 1a da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago: www.ongietorribaserrira.eus.

• GARAGALTZA AUZOKO TXAPELDUNAK

Ohi bezala, San Juan egunaren bueltan ospatu dituzte jaiak Garagaltza auzoan. Auzo-bazkaria, ume jolasak, mus txapelketa (argazkian daude irabazleak) eta dantzaldia larunbatean. Igandea, berriz, meza auzotarrek dotore apaindutako elizan eta luntxa bertaratutako herritar guztientzat.



Parrila
Egurrezko labea
KM 0 produktuak
Terraza atsegina
Jangela pribatuak
...

ZATOZ UDAKO GAUAK GOZATZERA


EtcheAundi

ERRESERBAK
info@etxeaudi.com
943 781 956 •  Etche Aundi  @etxeaudirestaurant_



Hamar gaztek jaso dute artzain diploma Gomiztegin

Arantzazuko Artzain Eskolak 25 urte bete ditu eta dagoeneko 304 gazte trebatu ditu artzaintzan

Gomiztegiko artzain eskolak 25 urte bete ditu ikasleak artzaintzarako gaitzen eta ofizioa bera modernizatu eta gaztetzeko ahaleginean. Ekainaren 23an egin zuten ikasturte amaierako ekitaldia eta, ohiko legeaz, diploma eta artzain makila jaso zuten 2021/2022 ikasturtea osatu duten hamar gazteek: bi emakume eta zortzi gizonezko, hiruna nafar eta bizkaitar, bi arabar, eta gipuzkoar eta katalan bana. Adinari dagokionez berriz, hamarretik zazpi 31 urtez azpikoak dira, eta hauetako lauk ez dituzte oraindik 20 urte. Horrek erakusten du zein lan garrantzitsua egiten ari den Arantzazuko eskola euskal ardi eta ahuntz sektorea gaztetzeko.

Hala ere, belaunaldi erreleboia erraztu eta bideratzeko sistemen inguruko hausnarketa egin beharra dagoela adierazi zuten eskolako arduradunek, artzaintzatik bizi nahi duten gazteak egon badaudelako. Formazioarekin jarraitzeko bekak martxan jartzea, eta artzain eskolara emakume gehiago erakartzea ere aipatu zituzten etorkizuneko erronken artean.

Edozein modutan, bertan bildu ziren erakundeetako (Jaurilaritza, Foru Aldundia, Oñatiko Udala...) ordezkariak goraipatu egin zuten Gomiztegiko artzain eskola egiten ari den lana, hain gurea eta hain beharrezkoa den ofizioa bizirik mantentzeko. Kalitateko produktuak ekoizteaz gain, ingurumena zaintzeko artzainek egiten duten lana goraipatu zuten denek.



OMENALDIA

Goiko Bentako Migel Maiztegik eta Maria Luisa Moiuak artzain eskolaren omenaldia jaso zuten, eskolari laguntzeko beti erakutsi duten prestutasuna eskertzeko. Migelek esan zuen ardiaren sektoreak asko irabazi duela, eta pozgarria dela artzain izan nahi duten hainbeste gazte ikustea.

Artilea batzeko zerbitzua eskainiko da Oñatin, uztailaren 6an



Lurgintza, Abelur eta Gipuzkoako Landa Garapena Elkarteen Federazio Landaolak artilea batzeko zerbitzua antolatu dute. Debagoiena eskualdeari dagokionez, uztailaren 6an egingo da bilketa Urrutxuko ekarpen gunean. Aurrez **627 452 397** zenbakira deitu behar da eta bertan jakinaraziko zaie zein ordu eta tokitan entregatu beharko duten artilea.

Foru Aldundiak zerbitzuaren kostuaren zati bat ordainduko du, baina artzainak ere ordaindu beharko du, ardi kopuruaren arabera; hala, adibidez, 50 ardi edo gutxiago dutenen tasa 36,30€-koa izango da.

Hegazti ustiategien jabeentzako deialdia

Azken aldiaren antzeman diren hegazti-gripe kasuak direla eta, hegazti ustiategien jabeek (oilo edo ahate gutxi batzuk izanda ere) abeltzaintzako ustiategien erregistroan eman beharko dute alta, Foru Aldundian. Zalantza bat izanez gero, Bergarako eskualdeko nekazaritza bulegora jo daiteke.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Zeledon

Oñatiar batek sortutako Gasteiztarren ereserkia

Azken bi urteetan konfinatuta egon ostean, Zeledonek Andre Maria Zuriaren plaza zeharkatuko du aurten berriz ere, abuztuaren 4an, Gasteizko jaiei hasiera emanez.

1957tik errepikatzen den tradizioa da Zalduondoko Zeledonio Altzola festazalearen omenez sortutako Zeledon panpinaren jaitsiera, baina haren omenez sortu eta Gasteiztarren ereserki bilakatu den Zeledon doinua askoz lehenagokoa da eta oñatiar batek konposatu zuen, Mariano San Migel Urzelaik (Oñati, 1879 - Gasteiz, 1935), hain zuzen ere.

Instrumentista, editorea eta konposatzailea izan zen Mariano San Migel. Aitarekin egin zituen aurreneko solfeo eta klarinete ikasketak, eta Madrilen burutu zituen armonia eta instrumentazio arlokoak. Banda militar ezberdinetan aritu zen, eta 1900ean Madrilgo Alabardarien Errege Taldean sartu zen, oposaketa bidez, klarinete bakarlarri gisa.

1916an *Harmonia* aldizkaria sortu zuen, eta milatik gora partitura eta artikuluko interesgarri argitaratu zituen bertan. Gasteizera itzulita, musika eta klarinete irakasle gisa jardun zuen, eta hainbat obra harmonizatu zituen, batez ere musika bandetarako. Musika klasikoaren transkribatzaile gisa nabarmendu zen eta 300dik gora obra konposatu zituen, besteak beste Andre Mariari eskainitako prozesio-martxa; baina, batez ere, *Zeledon* kalejira-doinuaren sortzaile izateagatik egin zen ospetsu herri mailan.

Hasiera batean, erraldoi eta buruhandien konpartsari lagun egiteko konposatu zuen *Zeledon* doinua, eta 1918ko abuztuaren 2an estreinatu zuen Gasteizko udal musika bandak. Letra barik sortu zen doinua, baina 1921ean ipini zizkioten hitzak, eta 2015az geroztik euskarazko aldaera ere badu. Gasteizko kale batek Mariano San Migelen izena darama 1960az geroztik, eta bera bizi izan zen Olagibel kalean, haren omenezko plaka bat ipini zuten 1968an, Zeledon doinuaren estreinaldiaren 50. urteurrenean. ■



*Zeledon! Etxe berria egin duk!
Zeledon! Balkoian leiho on!
Zeledon! Etxe berria egin duk!
Zeledon! Balkoian leiho on!
Zeledon, Zeledon, Zeledon! Etxe berria egin duk!
Zeledon, Zeledon, Zeledon!
Balkoian leiho on!*



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

LOSU EGANA GONI TORREAUZOKO LASTERKETAN PARTE HARTUKO DU PATIN GAINEAN

"Zor bat neukan lasterketarekin"

Lan-istripu baten ondorioz ezkerreko hanka galdu zuela bost urte bete direnean, Torreausoko lasterketan parte hartuko du losu Egaña, patin baten gainean

'Ezina, ekinez egina' dio esaerak, eta horren adibide garbia dugu losu Egaña (Oñati, 1981). Bost urte bete berri dira ezkerreko hanka galduarazi zion lan-istripua gertatu zenetik, eta igandean (uztailak 3) Torreausoko lasterketan parte hartuko du, istripua gertatu zen lantegiaren parean hasi eta amaitzen den proban. "Duela lau urte antolatzaileen gonbidapena jaso nuen, lasterketa oinez egitera etortzeko, eta hasieran baiezkua eman nien, baina azkenean atzera egin behar izan nuen; artean ez nengoen psikologikoki prestatuta, baina orain bai". Iazko urrian hasi zen patinatzen ikasten, eta Torreausokoa izango da bere lehen lasterketa.

Ekainaren 12an bete ziren bost urte losuren bizitza aldatu zuen zoritarreko lan-istripua gertatu zenetik. Bost tonako altzairuzko bobina bat erori zitzaion gainera, eta ezkerreko hanka moztu zion, belaun paretik. "Momentu hartan seguru nengoen bertan hilko nintzela. Odol asko galdu nuen eta gorputza Itzaltzen ari zitzaidala sentitzen nuen", gogoratzen du losuk. Bere ezkontza egunaren urteurrena zen. Zorionez, lankide batek torniketea egin zion odoljariora mozteko, eta handik ordubetera Donostiako ospitalera bidean zen helikopteroz. Hiru hilabeteren ondoren bueltatu zen etxera, ezkerreko hanka barik.

"Lehenengo egunak gogorrak izan ziren", aitortzen du; "lehen egiten zenituen gauza arruntak egiteko gai ez zarela ikustea oso latza da". Medikuek esaten zioten dolua pasa behar zuela, eta bere gorputzeko zati bat betiko galdu zuela onartu.

Bizpahiru astez burumakur egon zen, baina, poliki poliki, egoerari buelta ematea lortu zuen losuk. "Egun guztia negarrez eta aieneka pasatzea alferrikakoa dela ohartu nintzen, eta ahalik

eta ondoen bizitzen saiatu behar nuela, bai nire onerako eta baita nire ingurukoentzako ere. Eta horretarako errezetarik onena burua okupatuta edukitzea zen, aktibo egotea. Hemendik aurrerako bizitza opari bat bezala hartu behar nuela jabetu nintzen, eta ahal den gehien disfrutatzen saiatu".

Berriro oinez ibiltzen ikastea izan zen aurreneko erronka. Hanka ortopedikoa ipini eta errehabilitazioa egiten jardun zuen bi hilabetez, egunero, Donostian. "Azken batean, beste modu batera bizitzen ikasi behar duzu. Eztago besterik. Inork ez dizu ezer oparituko, eta norberak egin behar du ahal duena aurrera egiteko". Gogor ekin zion lanari losuk, eta urtea bete orduko Legazpiko kurtzera igotzea lortu zuen. "Medikuek esaten zidaten agian ez nintzela gai izango, baina nik garbi neukan, ez zidala inork esango zer egin ahal nuen eta zer ez; hori nik neure buruarekin ikusi beharko nuela".

Handik lasterrera, ehizara joaten ere hasi zen. Ehiza zale amorratua izan da beti, eta lehen bezala ibiltzerik ez badu



ere, arnas-bide handia izan da beretzat. "Leku garbietatik ibili behar dut, eta beste modu batera ehizatzen ikasi behar izan dut, baina txakurrekin mendira irtetea bakarrik garaipen handia izan da niretzat".

TORREAUZOKO LASTERKETA

lazko udazkenean bere buruari erronka berria ipintzea erabaki zuen losuk, eta patinatzen ikas- teko Legazpin antolatu zuten ikastaro batean eman zuen izena. Bertan bizi da 2008az geroztik. "Beste batzuk ibiltzen badira, neu zergatik ez?, esaten nion neure buruari".

Astelehenero joaten da patin eskolara, teknika hobetzera, eta horrez gain, astean birritan ibili ohi da Legazpi eta Zumarraga arteko bidegorrian bere kasa. Hilabete batzuk baino ez daramatza patinatzen, baina Torreausoko lasterketan parte hartzeraz animatu da. "Antolatzaileei deitu nien, parte hartzeko aukerarik izango ote nuen galdetzeko, eta baietz, pozik hartuko nindutela, eta halaxe animatu naiz".

Berezia izango da beretzat Torreausoko lasterketa, baina ez istripua gertatu zen lantegi aurrealdean delako, era hone- tako bere lehen proba izango delako baizik. "Ni ez naiz inorekin lehiatzera joango, neure buruarekin baizik. Lasterketa txukun samar amaitzea lortzen badut, pozik".

Olaterainoko bideak ez dio kezkarik eragiten, bai ordea bueltakoak. "Lauan eta aldapan gora ondo moldatzen naiz, makuluekin bultza eginda, baina goitik beherakoan pisu guztia hanka baten gainean jartzen dudanez, kargatu egiten da, eta gelditu egin behar izaten dut tarteka. Denbora behar dut oraindik hankak indartzeko".

Dena den, gogotsu eta ilusio handiarekin dago erronka berri honi ekiteko, eta ez omen da azkena izango. Udazkenean Bergara eta Soraluez arteko lasterketan parte hartzeko asmoa du, eta Behobiaren bat ere egin



Ez naiz inorekin konpetitzera joango, neure buruarekin baizik. Lasterketa txukun samar amaitzen badut, pozik



Beste modu baten bizitzen ikasi behar duzu. Ez dago besterik. Inork ez dizu ezer oparituko

nahi luke. "Bai, ez dakit datorren urtean ala hurrengoan, edo noiz, baina gustatuko litzaidake Behobia-Donostia bat egitea."

Txalotzekoa, benetan, muga eta oztopoak gainditzeko losuk erakusten duen kemena eta adorea. "Ez dago besterik. Bizitza momentu batetik bestera alda daiteke, eta datorrenari aurre egin behar zaio. Ni, seguruenek, lehen baino gogo gehiagorekin bizi naiz orain, eta nire etsenplua lagungarria baldin bada norbaitentzat, halako gauza bat gertatu arren aurrera egitea posible dela ikusteko, are hobeto. Niri ere lagungarriak gertatu izan zaizkit beste batzuen esperientziak". ■

Ez dago mugarik Torreauson

Mugikortasuna mugatua duten 9 lagunek parte hartuko dute. Handbike-an eta patinean doazen lasterkariak 10:15etan irtengo dira eta gainontzeko korrikalariak 10:35/10:40 inguruan

Igandean (uztailak 3) jokatu den XXIII. Torreausoko Krosa inoizko zabalena eta inklusiboena izango da, mugikortasun mugatua duten 9 lagunek parte hartuko baitute. Orri hauetan aipatutako losu Egañaz gain, aniztasun funtzionala duten bost haur eta gaztetxok ere parte hartuko dute, eta beste hiru lagunek handbike-an egingo dituzte ibilbideko 7,6km.-ak.

Horregatik, aurrete mailakatu egingo da. Hala, hanbike-an eta patinean doazen lasterkariak 10:15etan abiatuko dira, eta hauek Usakon itzulia hartu bezain pronto abiatuko dira gainontzeko korrikalariak 10:35/10:40 inguruan. Ibilbidean gurutzatuko direnez, partaide guztiek errepidearen eskumako aldetik joan beharko dute.

IZEN-EMATEA

Online da izena emateko bide bakarra, www.herrikrosa.eus atariaren bidez. Epearen arabera prezioa aldatu egingo da: uztailaren 1eko 22:00ak arte 8 euro, eta uztailaren 3ko 9:00ak arte, 15 euro. Dorsalak Torreauson bertan jaso beharko dira, goizean bertan. Lasterketaren ondoren, ohi bezala, hainbat opari zozkatuko dituzte partaideen artean, eta luntza ere egongo da korrikalariarentzat, ohiko laguntzaile taldeari esker.



www.herrikrosa.eus atarian eman daiteke izena



Lasterketaren ondoren luntza egongo da eta, ohi bezala, hainbat opari zozkatuko dituzte korrikalarien artean

KANTOIKRIT BUELTAN DA

Uztailaren 16an jokatu da pinoi finkodun bizikleta kriteriuma



Asier Egaña

Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean, uztailaren 16an itzuliko da Kantoikrit kriteriuma, herriguneko kaleetan jokatzeko den pinoi finkodun bizikleten lasterketan. Iluntzeko 21:30etan irekiko da zirkuitoa txirrindularientzat, eta 22:00etan hasiko da lasterketa. Txirrindulariek 15 bira eman beharko dizkiote herri barruko zirkuitoari (27km). Sari banaketa 23:00etan egingo da plazan.



David Gonthier

Malen Osa, Mont Blanc-en txapeldun

MENDI LASTERKETAK Handia egin du beste behin Malen Osak, Salomon taldeko korrikalari gazteak. Ekainaren 25ean Mont Blanc-eko 23km.-ko lasterketa irabazi zuen 2:33:59-tan. Azpimarratzekoa baita ere, **Ainara Uribarrik** proba berean lortutako 4. postua.

Bi aste lehenago, bigarren sailkatu zen Malen Osa L'Olla de Núria-ko (Girona) lasterketa entzutetsuan.

Xabi Lete, 'GTPE Picos de Europa' proban garaile

Nazioarte mailan oihartzun handia duen GTPE Picos de Europa lasterketa irabazi zuen Xabi Lete korrikalari oñatiarrak ekainaren 25ean. Letek 35km.-ko distantzian parte hartu zuen eta 3:22an osatu zuen ibilbidea. Bestalde, **Nagore Uribarri** oñatiarra 2. sailkatu zen 10km.-ko distantzian.



Debarroko txapeldun

PILOTA Peru Etxegarai eta Oier Regueiro Aloña Mendiko pilota-riek 73. Debarroko Txapelketa irabazi dute gazte mailan. Oñatiarrak 22-20 nagusitu ziren Lazpiur-Barandiaran atxabalarren aurka, eta Etxegarai izendatu zuten finaleko jokalaririk onena.



Emaitza bikainak, Gipuzkoako txapelketetan

IGERIKETA Ekainaren 25-26an Irunen jokaturako Gipuzkoako infantil, junior eta absoluto mailako txapelketetan emaitza bikainak lortu zituzten Aloña Mendiko igerilariak. Kluben arteko sailkapenean Aloña Mendi 3.a izan zen, eta Ane Madina ere 3. emakumerik onena izan zen, guztien artean.

Bakarkako lanei dagokienez, Ane Madinak urrezko bost domina eta zilarrezko bat lortu zituen 100 Libre eta 100 nahiz 200 Bizkarrean; Kepa Aldekoak urrezko (200 Bizkar) eta zilarrezko (50 Bizkar) bana; Markel Aldekoak brontzezko bi (50 Libre eta 100 Bizkar); Ekhi Lazkanoiturburuk brontzezko bi (100 eta 200 Bizkar); Mattin Garaik brontzezko bat (200 Bizkar); eta Oier Osak ere brontzezko bat (800 Libre).

Erreleboetan, Ane Madina-Saioa Betelu-Irati Delgado-Ane Pelayo lauokak zilar eta brontze bana lortu zuten; Oier Aldekoa-Ekhi Lazkanoiturburu-Aitor Diaz-Kepa Aldekoak ere zilar bat; Oier Aldekoa-Ane Pelayo-Ane Madina-Kepa Aldekoak brontze bat; eta Ane Madina-Irati Delgado-Irati Pelayo-Ane Pelayok brontze bat.

ITSAS ZEHARKALDIAK. Xabi Gordoa Aloña Mendiko igerilariak emaitza bikainak lortu ditu denboraldiko lehen itsas zeharkaldietan. Ekainaren 12an Bermeo eta Mundaka artekoan (2.500m.) bigarren sailkatu zen (30:30), eta ekainaren 25ean Zumaia-ko (3.000m.) irabazi zuen (25'28").



Asteburuko irteera Pirineotara, Aloña Mendirekin

MENDI IRTEERA Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, asteburuko irteera egingo da Pirineotara **uztailaren 16-17an**. Larunbatean goizeko 5:30etan izango da irteera, eta egun horretan Pico Musales (2.653m) tontorrera igoko dira (17,5km / +1.215m / 7,5 ordu).

Panticosako Casa de Piedra aterpean lo egin ostean, igandean Garmo Negro (3.051m) igoko dute (10km / +1.440m / 7:45 ordu). Izena emateko epea: **uztilak 10**, alonomendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa: 120€. Plaza kopurua mugatuta dago (20 pertsona). Igandeko irteeran beharbada elur neberotan sartuko dira eta, beraz, beharrezkoak dira kanproiak eta pioleta. Gidaritza teknikoa Mendiak eta Herriak elkarteko bi gidariren esku egongo da. Federatuta egon behar da irteeran parte hartzeko.



Garmo Negro (3051m)



Aloña Mendiren pilota txapelketako finalak

PILOTA Aloña Mendi pilota sailaren denboraldiko finalak jokatu ziren ekainaren 25ean, emaitza hauekin: (BENJAMINAK) A. Mugarza **16** - A. Zubia **6**; (ALEBINAK 1. urtea) M. Cristobal **16** - U. Egaña **13**; (ALEBINAK 2. urtea) M. Egurbide **18** - A. Barrena **11**; (INFANTILAK) I. Rodriguez **18** - U. Zubia **7**; (KADETEAK) M. Guridi **22** - I. Barrena **13**; (JUBENIL-NAGUSIAK) A. Biain **22** - M. Ugarte **10**. Beñat Barrenak ere pilota sailaren saria jaso zuen, markagailuan fin-fin egiten duen lan bikaina eskertzeko.

3x3 saskibaloia txapelketako irabazleak



SASKIBALOIA Olakuan egitekoa zen 3x3 saskibaloia txapelketa kiroldegian jokatu behar izan zuten eguraldi euritsuaren ondorioz, baina, hala ere, pozik geratu ziren antolatzaileak txapelketak izandako erantzunarekin. Helduen mailan 16 talde aritu ziren eta *Flo's* taldea nagusitu zen 21-12 *Team Daddy*-ren aurka. Gazteen mailan (-14 urte) *Mini Bad Boys* nagusitu zen 8-6 *Patata frijituak* taldearen aurka. Finalen atarian 3ko jaurtiketen txapelketa ere egin zen, eta Adrian Gonzalez nagusitu zen, 10etik 7 saskiratuta.

IGERIKETA IKASTAROAK ETA UR JARDUERAK

2022/2023
ikasturterako
izen-ematea zabalik



Urritik aurrera, kiroldegian eskainiko diren igeriketa ikastaroetan eta ur jardueretan parte hartu nahi duten haur eta helduek uztailaren 3a baino lehen eman behar dute izena www.zubikoakirol-dega.oñati.eus webgunean edo kiroldegiko harreran.

Gehienezko plaza kopurura betetzen den taldeetan zozketa bidez aukeratuko dira partaideak. Familia bakoitzak posta bidez jasoko du zozketaren emaitza eta, ondoren, uztailaren 4tik aurrera aldaketak egiteko aukera egongo da. Eskatutako taldean lekurik gabe geratu direnei deituko zaie, zozketaren hurrenkera-aren arabera.

UDAKO ORDUTEGIA KIROLDEGIAN

Hauze izango da kiroldegiko ordutegia uztaila-abuztuan.

UZTAILEAN:

- Astelehenetik ostiralera **7:30-21:30**,

- Asteburu eta jai egunetan **9:00-20:00**.

ABUZTUAN,

- Astelehenetik larunbatera **10:00-20:00**

- Igande eta jai egunetan ITXITA.

KALEAN

OÑATIKO UDALAREN UDAKO KULTUR EGITARAUA

Hemen da aurtien ere udaleko Kultura sailak uda sasoirako prestatu duen KALEAN programa. Joan den astean eman zitzaion hasiera, musika eskolako ikasleen kontzertuarekin, eta ostiralean (uztailak 1) izango du segida, Ganbara eta Hots abesbatzen kontzertuarekin. Ondoren, uztailako asteazken guztietan egongo da emanaldi bana. Musikak izango du pisu berezia KALEAN egitarauan, baina estilo ezberdinetako musika programatu dute, ahalik eta herritar gehienengana isiteko asmoz. Aurtien ere hain ohikoak ez diren herriko txokoetan izango dira emanaldiak.



UZTAILAK 1

Ganbara eta Hots abesbatzak kontzertua

SANTA LUTZIA, 22:00



Ganbara eta Hots abesbatzek **Basoaren Hotsa** izenburua duen kontzertua eskainiko dute, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. Amaia Zipitria pianu-joleak ere parte hartuko du. Horrela aurkeztu dute emanaldia: "Basoa mikrokosmos bat da, basatia eta gizatiarra lotzeko lekua. Historiaurretik magikoa eta espirituala sinbolizatu ditu, baina basoak funtsezkoak dira luraren bizi-ziklorako. Horregatik, ezkututzen dituen sekretu eta soinueta murgiltzera gonbidatzen zaituztegu".

UZTAILAK 6

Frontona ikuskizuna

PLAZAKO FRONTOIA, 19:00



Ez da erraza definitzen 'Frontona' ikuskizuna. Euskal kulturaren pilota partida dela esan daiteke; jolasa, antzerkia, musika eta bertsoa uztartzen dituen antzezlan parte-hartzailea. Batetik, antzeztutako partida izango da kantxan, pilotariena. Bestetik, kontrakantxako pertsonaiak (artekariak, epaileak, garbitzailea, esatariak...) etengabeko hartu-emanean egongo dira ikusleekin, eta hauek bi multzotan (gorriak eta urdinak) banatuta egongo dira. (Eurria egiten badu, kiroldegian)

UZTAILAK 13

Bidaide kontzertua

LAZARRAGA LORATEGIA, 19:00



Euskal Herriko goi-mailako ikastegian (Muskene) 2018an sortutako taldea da Bidaide. Itziar Vargas (biolina), Nora Lopez (biolontxelo), Ane Urbizu (akordeoia) eta Manu Gaignek (perkusioa) osatzen dute taldea, eta folk musika egiten dute. Ingalaterrako zein Irlandako musika tradizionala ardatz hartuta, erritmoz betetako kontzertu frexko eta dantzagarria eskaintzen dute, gure lurraldeko eta munduko beste herrialde batzuetako erreperorioan murgilduz.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

UZTAILAK 20

Alarma Morea kontzertua

SAN LORENTZOKO ERMITA, 19:00



Zumarraga-Urretxuko hirukotea da Alarma Morea. Ainhoa Plágaro (gitarra eta ahotsa), Uxue Plágaro (ahotsa) eta Nerea Dualek (perkusioa) osatzen duten taldeak askotariko estiloak jorratzen ditu (*pop, rock, reggaeton...*) baina, batez ere, *runba* jotzen dute. Beraien abesti batzuk badituzte ere, beste kanta batzuen bertsioak abestu ohi dituzte, berdintasuna aldarrikatzen duten eta emakumezkoen abestien bertsioak, bereziki. Iaz, Zumarragako jaietako kanta izan zena (Ez beti da ez) sortu zuten, eta jarrera sexisten aurkako mezua hedatzeko erabili zen.

UZTAILAK 27

Omago kontzertua

LAZARRAGA LORATEGIA, 19:00



2018an Uribe Kosta eta Bilbo aldean sortutako pop-folk taldea da *Omago*. Aitziber Omagogeaskoa (ahotsa eta gitarra akustikoa), Iñigo Larrazabal (gitarra elektrikoa) eta Oier Aldekoak (baxua eta teklatura) osatzen dute taldea, eta 2019ko *BBK Soinu Berriak* lehiaketa irabazi zuen, bere zuzeneko indartsuari esker. Urte bereko *BBK Live Udazkena* jaialdian parte hartu zuten eta berain lehen diskoa (*Ningún ser*) kaleratu zuten. Folk amerikarra eta, tarteka, indie-rock estilotik edaten duen pop dotore eta melankoniatsua egiten du *Omago*k

JAI EGITARAUAREN AZALA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Oñatiko jaietako egitarauaren azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak.

18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du eta egile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.

Formatu digitalean soilik (JPG, PNG edo PDF) aurkeztu ahal izango dira lanak. (Originala formatu ez-digitalean eginez gero, haren irudia bidali beharko da). Edozein kolore eta teknika erabili ahal izango da. Ezinbestean agertu beharko da testu hau: '**Oñatiko Jaixak 2022**'.

AURKEZTEKO EPEA

Lanak **uztailaren 15a** baino lehen aurkeztu behar dira, *kultura.idazkaritza@onati.eus* helbidera. Mezuan '**Kartel lehiaketa 2022**' agertu beharko da, eta egilearen izen-abizenak eta telefonoa ere adierazi beharko dira.

Kartel irabazlearen hautaketa Internet bidezko bozketa irekiz egingo da, uztailaren 18tik 25era bitartean. Sare sozialetan eta web orrian zintzilikatuko da bozka emateko esteka. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Saritutako lana Udalaren esku geratuko da.

**Kartel irabazlearen
hautaketa Internet
bidezko bozketa irekiz
egingo da, uztailaren 18tik
25era bitartean**

IRAILAK 4

Turistreatzen kale antzerkia

ERREMENTARI PLAZA, 19:00



Trapuzaharra antzerki taldearen kale ikuskizuna da *Turistreatzen*. Bidaia-agentzia batek stand bat jarri du kalean, beraien puntako produktua jendeari eskaintzeko: 'bidaiairtualak, nahierara sortuak'. Etxekoandre bat sarituko dute itsas bidaia irtual batekin, eta bertan antolatuko dute bidaia hori, zuzenean. Bere fantasia guztiak (batere ohikoak ez direna) askatuko ditu bidaia honetan.

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



▲
Bi abesti ditu Sharon Stoner taldearen Vol.5 EP berriak eta plataforma digitaletan soilik aterako da

Sharon Stoner taldeak EP berria plazaratu du Resurrection Fest jaialdian emango duen kontzertua ospatzeko

Estatu mailan egiten den hardcore, metal eta punk jaialdi inportanteena da Resurrection Fest. Bertan izango dira oñatiarrak uztailaren 2an

Sharon Stoner taldea *Resurrection Fest* jaialdi entzutetsuan izango da uztailaren 2an, eta hori ospatzeko **VOL.5** izeneko bi kantuko EP-a argitaratu du. Aurrerapen kantua, **Izan hare**, ekainaren 15az geroztik dago entzungai sarean.

Sharon Stoner taldeak 2020rako zeukan *Resurrection Fest* jaialdian jotzeko hitzordua, baina pandemiak halabeharrezko bi urteko itxaronaldia ekarri du. Horregatik, eta ospakizuna aitzakia moduan hartuta, bi kantu berri kaleratu ditu **Vol. 5** izeneko EPan.

Bi kantuak Oñatiko SEIAM estudioan grabatu dituzte eta Iban Yanizek egin du masterizazioa. **Izan hare** aurkezteko bideoa, berriz, Erik Zubiriak egin du.

21 URTEKO IBILBIDEA

Iñigo Ibarrondo, Egoitz Olalde eta Mikel Zarketak osatutako hirukoak ibilbide luzea du atzetik. Lau disko kaleratu dituzte oraingo honen aurretik: **3.000 bira** (2006), **13 taupada** (2008), **Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak** (2012) eta **Errailetatik** (2019).

2006an Bilbo Hiria Pop Rock lehiaketan talde onenaren saria jaso ondoren **Azkena Rock** jaialdian jotzeko aukera izan zuten eta orain gogo bereziz jaso dute *Resurrection Fest* bezalako jaialdi batean jotzeko aukera, are gehiago bi urtez itxaron beharra izan ondoren. Galiziako jaialdi ezagunean, egun berean, **Gojira** eta **Mastodon** taldeak izango dira kartelburu, beste hainbat talderekin batera. ■



Viveiron (Galizia) egingo da Resurrection Fest jaialdia ekainaren 29tik uztailaren 3ra

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Ganbara Abesbatzak bi kontzertu eskainiko ditu Donostiako Musika Hamabostaldiaren baitan

Inaugurazio eguneko kontzertuetako bat emango du, Donostian, eta Pablo Sorozabalen omenezkoan ere parte hartuko du, Arantzazun

Ganbara Abesbatzeko kideek ez dute atseden hartzeko denbora askorik izango aurtengo udan. Asteburu honetan bertan (uztailak 1), *Basoaren Hotsa* kontzertua eskainiko dute, Hots abesbatzarekin batera, Santa Lutzian (22:00), Oñatiko Udalaren *Kalean* egitarauaren baitan.

Ondoren, abuztuan, beste hitzordu garrantzitsu batzuk ere izango dituzte Ganbarakoek. Alde batetik, Donostiako Musika Hamabostaldiari hasiera emanez, abuztuaren 2an izango diren kontzertuetako bat emango dute, Donostiako San Bizente elizan (20:30). Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen abesbatzak *Inspiratio* izenburua duen kontzertua eskainiko du.

Musika koralaren zimenduetan murgildu eta entzulea liluratu nahi duen programa inspiratzailea da *Inspiratio*. Tomas Luis de Victoria, Brahms, Mendelshonn, Runestad edo Cadario bezalako konpositore handien gana hurbildu eta garaian garaiko musikaren arloan egin zituzten ekarpen berritzaile eta benetakoak ezagutzeko aukera izango dute entzuleek. Sarrera dohanik izango da, edukiera bete arte.

Bezperan, abuztuaren 1ean, Bermeoko parrokiaren (19:00) eskainiko du programa bera Ganbara Abesbatzak.

PABLO SOROZABALEN OMENEZKOA ARANTZAZUKO SANTUTEGIAN

Aurten 125 urte betetzen dira Pablo Sorozabal konpositore donostiarra jaio zela eta, horren harira, haren omenezko kontzertua eskainiko dute Easo eta Ganbara abesbatzek abuztuaren 25ean, Arantzazuko santutegian (19:00).



Pablo Sorozabal (1897-1988)

**Abuztuaren 2an *Inspiratio*
programa eskainiko du Ganbara
Abesbatzak Donostian, eta
abuztuaren 25ean
Pablo Sorozabalen omenezko
kontzertuan parte hartuko du
Easo abesbatzarekin batera**

'Haritza eta ihia. Sorozabali omenaldia' du izenburua emanaldiak, eta Sorozabalek konposatutako euskal doinuaren artean aukeraturako eta euskal folklorearen ondarearen parte diren hainbat doinu abestuko dituzte, XX. gizaldiko euskal konpositore liriko eta sinfoniko handienetakoari omenaldi xumea eta ederra eskainiz.

Aipatutako Easo eta Ganbara abesbatzek gain, Iñaki Salvador eta David de Oliveira pianu joleek, Oñatiko Aita Madina Txistu Taldeak, Gero Axular Dantza Taldeak eta DAB konpainiak ere parte hartuko dute ikuskizunean. Sarrerak (18€ / 13€ ikuspen murriztua) www.quincenamusal.eus atarian.

Udako ordutegia udal liburutegian

Udako ordutegia indarrean da jada udal liburutegian. Hala, **uztailean** zehar arratsalde (16:30-20:00) soilik egongo da zabalik helduen liburutegia. Haurrena itxita egongo da, baina, ohi bezala, nagusien liburutegian txoko bat egongo da haur liburutegiko hainbat liburu eta DVDekin. Larunbatetan itxita egongo da kultur etxea.

Abuztuan zehar, irailaren 5era arte, goizez (9:30-13:30) zabalduko da helduen liburutegia, astelehenetik ostiralera.

Madinaren omenezko diskoa grabatzeko crowdfunding-a

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen *Suhar* koruak Aita Madinari eskainitako diskoa finantzatzeko crowdfunding kanpaina jarri du abian Verkami plataforman.

12€-tik gorako ekarpenak egin daitezke eta trukean CDaren kopia fisikoa eta beste hainbat opari emango dituzte.

Diskoak bi zati izango ditu. Lehenengoan, Madinak sortutako abesti herrikoiak ('Beti eskamak kentzen', 'Oles ezkonberriak...') jasoko dituzte, eta bigarrenean obra erlijiosoak, 'Aita Gurea' eza-guna barne. Maiatzean grabatu zuten eta urrian aurkeztuko dute diskoa Oñatin.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

UZTAILAK 2 / 19:00

'DE VECINOS COMO ESTOS LIBRANOS SEÑOR'



Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldekoen emanaldia (5€). **Santa Ana.**

KONTZERTUAK

UZTAILAK 7 / 21:30

VIBORA + LEE KORE

SAREK eta Gaztetxeak antolatutako 'Ostegunak etxera' ekimenaren baitan Gasteiz eta Oñatiko hardcore/metal taldeen kontzertua (3€). **Gaztetxean**

UZTAILAK 14 / 21:30

NEALTA FOLA

'Ostegunak exera' ekimenaren baitan Aretxabaletako punk taldearen kontzertua (3€). **Gaztetxean**

UZTAILAK 21 / 21:30

SUKENA

'Ostegunak exera' ekimenaren baitan Oñatin sortutako Sukena taldearen (Eider eta Nahia Herraiz ahizpak, eta Julen Murua) kontzertua (3€). **Gaztetxean**

UZTAILAK 28 / 21:30

DENA

'Ostegunak exera' ekimenaren baitan Ondarruko rock taldearen kontzertua. (3€). **Gaztetxean**

IKASTAROA

UZTAILAK 2 / 9:00-14:00

JOELLETTTE IKASTAROA

Trauti-Hesirik Gabe elkarteak antolatuta. Mugikortasun arazoak dituzten pertonekin mendi ibilaldiak egiteko Joellette aulkia erabiltzen ikasteko tailerra, Yosü Vazquez irakaslearen eskutik. Dohainik. Izen-emateak: trauti2000@gmail.com / 665721490. **Eltziako aparkalekuan.**



ZUBILLAGAKO JAIXAK

UZTAILAK 1

19:00 Pello basurdearen jeitsiera.

19:15 Pilota txapelketa herrikoia.

Finala; **20:30** Auzo barbakoa frontoian.

UZTAILAK 2

17:00 Mus txapelketa auzo elkartearen

17:00 Potx magoaren ikuskizuna

18:00 Toka-Txiki txapelketa (-16 urtekoentzat); Ondoren txorimaloak eta txokolatada solidarioa; **19:00**

Ganbara abesbatza elizan; **20:00**

Diskofesta (Gauargi) + Mozorro

lehiaketa **22:00** Diskofesta eta sari

banaketa.

UZTAILAK 3

11:00 Meza; **11:45** Luntxa auzoko

jubilatuentzat. Ondoren, dantzariak

eta omenaldia eta zozketa auzoko

jubilatuentzat; **13:00** Musika

bandaren kontzertua; **17:00** II. Aloña

Mendi pilota txapelketako finalak.

18:00 Txorimaloak + Musika +

Errifen zozketa; **18:00** Helduen toka

txapelketa; **20:00** Pello basurdearen

agurra.

TORREAUZOKO JAIXAK

UZTAILAK 3

9:00 Itxaflero jaurtiketa; **10:30**

Torreauzoko XXIII. Herri Krosa.

Ondoren, sari banaketa; **13:00**

Luntxa herriko dantzari, bertsolari

eta trikitilariekin; **14:30** Auzoko

bazkaria Etxe Aundi jatetxean; **17:00**

Torreauzoko XXV. Mus txapelketa

(Izen ematea 16:30etatik aurrera).

Gauean jaiei amaiera emateko

itxaflero jaurtiketa.

TRIANAKO JAIXAK

UZTAILAK 8

19:00 Astotrastoren jeitsiera. **19:00**

Totai - Boliviarrak pintxoak; **19:30**

Prsoen aldeko elkarretaratzea; **22:00**

Kontzertuak (Mentertz + Doce C Klik

+ Maixa eta Malakias); **00:00** Bikote

jolasak. Ordu txikitan helduentzako

marrazki saia.

UZTAILAK 9

12:00 Umeentzako marrazki saioa

+ sari banaketa; **15:00** Ilini kafea;

16:00 Mus txapelketa; **17:00** Ur

pistola gerra (ekarri norberak

bere pistola); **19:00** Txorimalo eta

erraldioen kalejira, dultzaineroek

lagunduta; **19:00** Totai-Boliviarrak

pintxoak; **20:00** Erruki erromeria;

23:00 Kontzertuak (Erruki erromeria

+ Yogurinha Borova). Gau osoan

zehir photocall-a. Ordu txikitan

zizka-mizkak.

UZTAILAK 10

10:00 Goiz eresia; **13:00** Oñatz

dantza taldeko gaztetxoaren saioa;

15:00 Auzo bazkaria; **19:00**

Bertso saioa: Txaber Altube, Ane

Zuazubizkar, Lourdes Ondaro

eta Urko Arregi); **21:00** Xolonpon

omenezko trakia

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko ogia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

MARTI- ZINEMA

GAUEKO ZINE
EMANALDIK
AIRE LIBREAN

Urtero legez, uztailaren
MARTIZINEMA itzuliko
da Antixena gaztetxera.
Martizenero zine
emanaldi bat izango da
aire librean, eguraldia
lagun.

UZTAILAK 5 / 22:00

Brinkola



Asier Altuna eta Telmo
Esnalen umore eta
intrigazko telesailaren 1, 2
eta 3 atalak.

UZTAILAK 12 / 22:00

Brinkola telesailaren 4, 5
eta 6 atalak.

UZTAILAK 19 / 22:00

**Usual
suspects**

(1995,
AEB), Bryan
singer-en
filma.



UZTAILAK 26 / 21:30

**Paradisu
zinema.**

(1988,
Italia)
Giuseppe
Tornatore-
ren filma



Hileko gomendioa

BIBLIO-OPORRAK gida ar-
gitaratu dute Aramaio,
Aretxabaleta, Arrasate,
Bergara, Eskoriatza, Le-
gazpi eta Oñatiko udal li-
burutegiek. Adinka (0-6
urte, 6+, 9+, Gazteak eta
Helduak) sailkatutako 40
liburu eta bosna disko eta
film gomendatzen dira ber-
tan.

ZINEA



Pelikula ikusienak

Amaitu berri den ikasturtean (iraila-ekaina) honako hauek izan
dira pelikula ikusienak Oñatin. Hurrengo emanaldiak irailaren.

HELDUAK:

- Maixabel (675 ikusle)
- El buen patrón (321)
- Benedetta (293)
- Erase una vez en Euskadi (267)
- Madres paralelas (235)



HAURRAK:

- Encanto (210)
- Sonic 2: La película (202)
- Spider Man: No way home (161)
- La familia Adams-2 (149)



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Uztailak 4, 5, 13, 14, 16, 17, 19, 21,
25, 27, 29, 30 eta 31. Abuztuak 2, 4,
8, 10, 12, 13 eta 14.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Uztailak 6, 7 eta 15. Abuztuak 17, 19,
20, 21, 23, 25 eta 29. Irailak 2, 3 eta 4..

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Uztailak 8, 9 eta 10. Abuztuak 16,
18, 22, 24, 26, 27, 28 eta 30. Irailak
1 eta 5.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Uztailak 1, 2, 3, 11, 12, 18, 20, 26 eta
28. Abuztuak 1, 3, 5, 6, 7, 9, 11 eta 15.



MERKATU TXIKIA

GARAJEA

Garaje itxia salgai Olakua
7an (12,96m²). Solairuarte bat eginda
dauka. 665720916 / 635739326.

ETXEBIZITZA

Oñatiar familia batek
etxebizitza (2 edo 3 logelakoa) alokatu
edo erosi nahi du. 680 398 022

ETXEBIZITZA

Ukrainar emakumea,
semearekin, etxebizitza alokatu nahi
du. Lana badu eta erreferentziak ere
bai. 676 168 661.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza erosi nahi
nuker Oñatiko erdigunean, 120m²-tik
gorakoa. Deitu: 610 466 020.

ODOL ATERALDIA

UZTAILAK 8 / 16:30-20:30

Enpresagintza fakultatean. Txanda
hartzeko deitu: 943 007 884

garmendia tejas

Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



Aktibitateak



Kalitatearen



Oraineko



(*) Itten: arrastua, pistia

80. numerua

Atzo goizian hasi giñalakuan, eta, oraingurekin, 80. numerora edo zenbakira ailegau gara, aurreikuspen eta ezinttasun guztiak gaindittuta. Orduan, zelebrou degigun esaerako errementarixaren moduan, gastuai begiratu barik:



Olagizona

*"Olagizonak eta errementarixak,
begixak baltzak eta hagiñak zurixak,
alperrik egingo dau larogei garixak,
ardaua erango dau errementarixak"*



Errementarixa

>> TXISTE KONTARI

Piparpoteko melakotoia

Sartu zan behin herritar bat herriko janari-denda batian errekaduetan eta, holaxe hasi ziran barriketan dendarixa eta bixak:

D: Zer jarriko dotsut, ba?

H: Jarri egidazu garbantzua,... txixara-zopia, kullaratik irrist egitten dauena,... olixua,... eta gatza.

D: Ondo da. Zer, domekan garbantzua eta okela gixaua ifintteko asmua ala?

H: Bai, ondo igarri dostazu! A, ixixa ahaztu xat, tomatia be biharko neke okeliarekin ifintteko.

D: Eta pipar gorriak edo?

H: Baitta! Ifiñi dozena erdi bat.

D: Besterik?

H: Bai, postrerako ifiñi **piparpoteko melakotoia**, eder askua da-eta!

D: Eee!!!???



Dendarixa

>> ASMAU

Zirrindara honetako berbetatik zeintzuk eztira insektuak?

ezpatia
mandeulixa
burduntzixa
ahuntzerlia

arkakusua
zirauna
labatxurrixa
erlabixua

kaparra
labezomorrua
Arabako zezena
txindurrixa

eulixa
amarratza edo armiarmia
erlia
harra

Erantzuna: zirauna, amarratza edo armiarmia, kaparra eta harra.
txindurrixa (hormiga); harra (gusano); amarratza edo armiarmia (araña); eulixa (mosca); erlia (abeja).
Arabako zezena = arkanbelea (ciervo volante); ahuntzerlia (avispa); erlabixua (avispa grande);
labezomorrua (cucaracha); mandeulixa (tábano grande); burduntzixa (libélula); labatxurrixa (grillo);
Berbetegixa: ezpatia (tábano); arkakusua (pulga); zirauna (lución, ciega); kaparra (garrapata);

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Plantxetako emakume langilliak

Iñoiz komentau izan dogu oso inportantia izan dala **emakumiak** azkenengo 150 urtietan zihar Oñatiko **fabrika eta taillerretan langille lez** euki dauen parte-hartzeia. Neurri haundi batian gure herrixan jarri ziran lantegi-klasiari zor xako berezittasun hori: hasi XIX. gizaldixaren bigarren erdialdixan jasotako Garañeko **pospolo-fabrikatik** eta harrezkeroko **txokolaterixak, pilak** edota **plantxak** egitteko enpresak, **palilogintzan** edo **guardasolgintzan** jardundakuak eta beste batzuek **andrazko asko enpliau dittue** euren produziño-lanetarako.

Gaurko argazkixan agiri diranak **Solaun y Rubio S. A.** plantxa-fabrika ziharduein 1950 hamarkadiaren akabera aldera. Ibarra zelaixaren ertz batian, erreka onduan eguen enpresa honek gerra-denporan ekin otsan bere zereginari **Dyna** moduan. Urte batzuk beranduago, ugazaba barrixakin, plantxak eta beste gaillu elektriko batzuk egitten jarraitu eben gorago aittatu dogun izena eta markia ebaliz. **Etzan fabrika oso haundixa, ezta txikin-txikiña be**; 60-70 langille ingurukua. Gehixenak gizakumiak, **baiña emakume mordoskia be ibilli zan**, montajian batez be, eta ofizinan banaka batzuk.

Argazkixan bost **Maiztegitar** agerketan dira, ahizpak, Lekunbarri auzoko *Exibaiñekuak*. Hain zuzen be, **Jesusaren** despedidia ospaketan dagoz, **Jaxinto Lizarralde** *Bellotzarekin* ezkondu aurtxuan. Hortik jakin dogu fotografia 1959ko lehenengo hilla-betetakua izango dala. Jesusaren onduan dagueen gizakumia ondo ezaguna zan Oñatin: **Antonino Ibarrondo**, herriko **musika-bandiaren zuzendarixa**, konposatzaillia eta hainbat instrumentu jotek ekixena; sasue haretan fabrikako ofizinan be lanian ebillen. Umiak, orduan enpresako kargudun zan **Periko Oleagaren** seme-alabak dira. Ezkerretik eskumara eta goititik behera honeitxek dittuzue ezagutu ahal izan dittugunak:

Goixeneko illaran: **Nati Abaunz**, San Pedroko kalejakua; **Arantxa Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekoa; **X. X.**; **Regina Kortabarria**, Kale Zaharreko *Agapittona*; **Antonia** [?]; **Dorita de Miguel**, kuartelekoa; **Juanita Altube**, *Murgialdai* baserrikua; **Jesus Mari Oleaga**, mutikua; eta **Maixabel Elorza**, Kale Zaharrekoa.

Erdiko illaran: **X. X.**; **Pilar Agirre**, Etzaluzeko *Karreterona*; **Mila Maiztegi**, Lekunbarriko *Exibaiña*; **Jesusa Maiztegi**; **Antonino Ibarrondo**, soiñujolia, plazakua; eta **Maritxu Maiztegi**.

Beheko illaran: **Mertxe Gonzalez**, Ourenseko Carballeda de Aviatik etorritakua; **Arantxa Dorronsoro**, San Juan kaleko *Azpeitixena*; **Axun Oleaga**, neskatillia; **Mari Karmen Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekoa; **Felisa Maiztegi**; eta **Joxepita Maiztegi**.

J. L. Plazaolak ataratako argazkixa Maixabel Elorzaren bidez heldu xaku. Argibidiak, berriz, Maixabelek berak ez ezik, beste hainbatek be samurtuko doskue: Arantxa Dorronsorok, Maiztegitar ahizpak, Beatriz Lizarralde, Monse Lizarralde, Joseba Agirrek, Iban Barrigonek edota Iban Gonzalezek. Milla esker danoiri!



Elkarrekin bidea egiten



Grupo ULMA, S. Coop.

Garagaltza Auzoa 51, 20560, Oñati (Gipuzkoa) · T 943 25 03 00 · www.ulma.com · grupoulma@ulma.com